

# *Savoiako Felipe Manuel printzearen erretratu*

Printze italiarraren irudia Espainiako gortean



Annemarie Jordan Gschwend  
Almudena Pérez de Tudela

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

### **Argazki-kredituak**

- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 8. eta 15. ir.
- © Colección Abelló, Madrid: 3. ir.
- © Collezione Voena, Italia: 18. ir.
- © Kunsthistorisches Museum, Wien: 12. eta 16. ir.
- © Museo Civico Casa Cavassa, Saluzzo: 13. ir.
- © Museo Nacional del Prado, Madrid: 2., 4. eta 7. ir.
- © Patrimonio Nacional, Madrid: 5., 6., 14. eta 17. ir.
- © Wildenstein & Company, Inc., New York: 11. ir.

Argitalpena:

*B'07* : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 3. zenb., 2008, 17.-73. or.

Babeslea:



«Juan de la Cruzek umerik eduki ezin zuen arren,  
ia-ia bizia eta arima eman zizkion aurpegi mutuari»  
Lope de Vega, *Angélicaren edertasuna*, 1602

Juan Pantoja de la Cruz (Valladolid, c. 1553-Madrid, 1608) gorte-erretratugile espainiarraren lan bikain hau 1959an antigoalekoen merkatuan agertu zenean, pertsonaia noblea zela eta margolaria Alonso Sánchez Coello<sup>1</sup> zela esan zuten [1. ir.]. 1913. urtea baino lehen, bere historiako une batean, arte-galeriaren jabea zen Eugène Fischhof<sup>2</sup> arte-merkatariak erosi zuen, eta, ostean, 1994an, hirugarren aldiz agertu zen merkatuan. Orduan, Sánchez Coelloren tailerrean margotu zutela adierazi zuten, eta, artean ere, inork ez zekien nor zen pertsonaia<sup>3</sup>. Antzinako pinturan espezializatutako Caylus arte-galeria madrildarrak erosi zuen<sup>4</sup>. Garai horretan, erretratuan agertzen zena Felipe Manuel (1586-1605) (Filippo Emanuele)<sup>5</sup>, Piemonteko printzea<sup>6</sup>, zela esan zuten, eta, azkenean, bete-betean asmatu zuten Juan Pantoja de la Cruzek margotu zuela adieraztean. 1994ko abenduan, Bilboko Arte Eder Museoko bildumara iritsi zen<sup>7</sup>. Museoak eskuratu zuenetik, mihiseak Espainiako zein atzerriko erakusketetan parte hartu du<sup>8</sup>.

Erretratua 1601. urtetik 1606. urtera arteko epealdian margotu zen, Espainiako gortearen burutza Madriletik Valladolidera eraman zutenean. Hori dela eta, Felipe III.a erregearen loba nagusienaren erretratua printzea Valladolidera heldu ondoren enkargatu behar izan zuten, 1603ko abuztuan, hain zuzen ere. Felipe Manuel Savoiaiko dukerriko oinordeko moduan bidali zuten Espainiara, Vittorio Amedeo (1587-1637) eta Emanuele

1 Christie's, Londres, 1959ko maiatzaren 1a, 18. lotea.

2 Markoan, testu hau daukan lakrezko zigilua darama: «Collection E. Fischhof. Paris». Ikus Catalogue des tableaux anciens... 1913. Errege Jauregiko liburutegian, Austria Etxeko zenbait kideren antzinako argazkiak daude gordeta, eta, euren artean, Savoiaiko Felipe Manuelen bat dago. Gainera, aztergai dugun margolanaren antzekoa da. Sánchez Coellorenak omen dira. Garai hartan, Leon Ad Laffite bildumakoak ziren (842. argazkia (3-9)). Madrileko San Jeronimo Karreran aktiboa zen E. Oterok egin zituen XIX. mendearen amaieran.

3 *Important Old Master Paintings*, Phillips, Londres, 1994ko uztailaren 5a, 34. lotea. Olioa mihisean. 101,5 x 89,5 cm. Honako hauexek dira neurri zuzenak: 111,5 x 89,5 cm.

4 Kusche 1995; Kusche 1996, batez ere, 149.-150. or., 13. ir.; Kusche 2007.

5 Seme nagusiari, Felipe Manueli, anaiak «anaia nagusia» esaten zioten familiarean. Cf. Mansau 1998; Mansau 2005a; Mansau 2005b; Calzona 2005, 110. or., 19. zenb.

6 Orain dela gutxi, erretratututakoa Felipe Manuelen Victorio Amadeo anaia zela esan zuten argudio sendorik eduki gabe. Cf. José Ignacio Hernández Redondo. «El Príncipe de Saboya», in Valladolid 2002, 67-70. or.

7 Inb. zenb. 94/119 (etiketa atzeko aldean dago: «1099 Coello Emanuel Philibert»). F. Chacón. «El Museo de Bellas Artes compra un retrato de Pantoja de la Cruz», *El Mundo del País Vasco*, 1994ko abenduaren 16a; Ana Galilea Antón. «Retrato del príncipe Felipe Manuel de Saboya», in Museo de Bellas Artes de Bilbao... 1999, 94-95. or.; Alfonso Emilio Pérez Sánchez. «Felipe Manuel de Savoiaiko printzearen erretratua», in Bilboko Arte Ederren Museoa... 2012, 46. or.

8 Ana Galilea Antón. «Retrato del Príncipe Felipe Manuel de Saboya», in Budapest 1996, 53.-55. or., 2. zenb.; José Ignacio Hernández Redondo in Valladolid 2002, 67.-70. or.; Ana Galilea Antón. «Il Principe di Savoia», in Genoa 2003, 76.-77. or., 2. zenb.; Alexandra Millón Mate. «Príncipe de Saboya Filippo Emanuele», in Madril 2005, 371. or., 145. zenb.; Turin 2007a, 44. or.



1. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Savoiaiko Felipe Manuel printzearen erretratua*, c. 1604  
Olioa mihisean. 111,5 x 89,5 cm  
Bilboko Arte Eder Museoa  
Inb. zenb. 94/119

Filiberto (1588-1624) anaia txikiakin batera, euren aita zen Carlo Emanuele I.a dukeak (1562-1630)<sup>9</sup> eskatuta, euren heziketa eta prestakuntza militarra Espainiako gortean osatzeko asmoz<sup>10</sup>. Nolanahi ere, hariak eta Felipe III.aren oinordekoa, etorkizuneko Felipe IV.a, 1605ean jaio arte, printze italiar horiek Espainiako tronuko oinordekoak ere izan ziren, Felipe II.aren<sup>11</sup> ilobak ziren eta. 1603ko abuztuaren amaieran Valladoliden eskaini zizkieten jaietan, entretenimenduetan, harreretan eta ohoretan, euren printze-mailaren araberaren artatu eta duindu zituzten. Savoiaiko arduradun diplomatikoak, Segismundo d'Estek, gorte savoiaerrari azaldu zion bezala<sup>12</sup>, erregearen loba moduan ez ezik, bere semeak izango balira bezala ere tratatzen zituzten printzeak: «erregearen semeen, Espainiako infanteen antzera»<sup>13</sup>. Beraz, Felipe III.ak, interes politikoengatik, printze nagusiaren eta anaien<sup>14</sup> erretratu egiteko eskatu zion gorteko erretratugile nagusia zen Juan Pantoja de la Cruz. Une horretan, 17 urteko Felipe Manuel etorkizuneko ustezko printze oinordekoa zen Espainiako errege-familiarentzat.

Horiek horrela, Felipe III.ak bere «infanteen» irudi ofizialak eduki behar zituen, Savoiaiko printzeak bere gortean modu ofizialean aurkeztu ahal izateko. Gorteko kide gehienek bezala, Pantoja de la Cruzek Madrileko etxea utzi behar izan zuen, eta, 1603ko azaroaren 26tik 1604ko urtarrilaren 18ra arte, gutxienez, dokumentatuta dago Valladoliden egon zela erregearen zerbitzura eta erregearen beraren, Austriako Margarita erreginari eta bere familiaren erretratuak margotu zituela, Felipe Manuelena eta haren anaienak barne<sup>15</sup>. Savoiaiko enbaxadoreak Carlo Emanuele I.a dukeari adierazi zionez, hiru anaiak gorputz osoko erretratuarako paratu ziren Valladoliden 1604ko uztailaren 26a baino lehen, margolaria egun horretara arte egon baitzen bertan enkargu horiek amaitu ahal izateko<sup>16</sup>. Beharbada, Pantoja margolaria Barrionuevo de Peralta lizentziatuak Valladoliden zeukan etxean bizi izan zen epealdi horretan. 1590. urtean, hain zuzen ere, etxea zeukan hiri horretan, eta biek oso harreman estua zeukaten, Francisca de los Huertos margolariaren emaztearen bitartez<sup>17</sup>.

- 
- 9 Karlo Emanuele Felipe III.aren arreba eta Felipe II.aren alaba zen Katalina Mikaela infantarekin ezkondu zen 1585. urtean, eta, 1597an, ordea, sabelondoaren ondorioz hil zen. 1603. urtean Valladolidera heldu zirenean, bere semeek 17, 16 eta 15 urte zituzten, hurrenez hurren.
- 10 1603. urtetik 1606. urtera Savoiaiko printzeek Espainian eduki zuten bizilekua nolako zen jakiteko, aurreko bibliografia aipatzen zuen azterketa bikain hau erabiliko dugu: Río Barredo 2006. Ez zen Austria Etxearekin estu-estu ahaidetutako printze italiarrak euren prestakuntza osatzeko asmoz Espainiako gortera zetozen lehen aldia. Esate baterako, Alejandro Farnesio (1545-1592), Parmako Margaritaren semea, Espainian bizi izan zen 1559. urtetik 1565. urtera (ikus Pérez de Tudela (prentsan)\_a). Familia proespainiarren beste printze italiar batzuk ere Espainian hezi ziren. Horra hor Ferrante Gonzaga edo Francesco Mariadella Rovere. Era berean, Austria Etxeko adar austriarreko printzeak ere modu berean bidali zituzten; esate baterako, Maximiliano II.a enperadorearen eta Austriako Mariaren semeak, etorkizuneko Rodolfo II.a eta Ernesto artxidukea. Ondoren, euren anaia txikiak, Albertok eta Venceslaok, ordezkatu zituzten. Izan ere, azken horiek denboraldi luzea eman zuten Felipe II.aren gortean, euren prestakuntza osatzeko asmoz. Cf. Mayer-Löwenschwerdt 1927.
- 11 Cf. Spivakovsky 1975, 72. or. (XII. gutuna: Felipe II.ak Katalina Mikaelari idatzitakoa, Madrilen, 1586ko apirilaren 27an): «Antes de responder a vuestras cartas os diré lo que he holgado de la buena nueva que he tenido de vuestra buen alumbramiento, que he sido para my el mayor contentamiento que podia ser, / y así estoy alegrísimo della y también de que sea hijo y me ayáis dado el primer nieto que he tenido».
- 12 Printzeen inguruneke bi gortesauk Torinora idatzi zituzten gutun xeheak daude: Savoiaiko enbaxadorea, Segismundo d'Este, eta Giovanni Botero aita jesuita ziren.
- 13 Felipe III.a Felipe Manuelen aitabitxia ere bazen. Río Barredo 2006, 408. or., 416.-417. or.
- 14 Oraindik ez dakigu norenak diren Savoiaiko printzeen bi erretratu, baina Pantojaren tailerlean aipatu zituzten 1608an margolaria hil zenean (Sánchez Cantón 1947). Ondoren, margolariaren edukitzen eta estudioaren inbentarioa berregin zen hemen: Kusche 1964, 259. or.: «Dos retratos de los principes de Saboya». 254. orrian, ikusten dugu 1608. urtean, margolaria hil zenean, Pantojak Padorako egin zituen erretratuak margolariaren esku zeudela.
- 15 Kusche 1964, 246.-247. or.; Serrera 1990, baina, batez ere, 61. or.: «Deve más el Rey Nuestro Señor todo el tiempo que estube fuera de mi casa en Madrid, estando la corte en Valladolid, por mandado de Su Magestad, con dos criados a mi costa».
- 16 1604ko uztailaren 26an Segismundo d'Estek Valladolidetik idatzi zuen gutuna hementxe dago: Archivo di Stato di Torino, Corte, *Lettere Ministri Spagna*, mazzo II; eta honako honexek argitaratu du: Anna Maria Bava. «Giovanni Caracca alla Corte dei Savoia», in Turin 2005, 43. or., 56. zenb.: «Li ser.mi Principi desiderano li retrati in piedi delle ser.e Principesse e Principi, essendo molti che gli desiderano e loro ne avranno gran gusto, compiaciarsi di comandare che si faciano, ch'in contraccambio manderanno li loro che si stano facendo». 1603an, Pantojari Valladoliden egindako eta, seguruenik, Felipe III.ak agindutako erretratuekin lotutako ordainketa berriari dagokionez, ikus Archivo General de Simancas (AGS), Consejo y Junta de Hacienda (CyJH), 431. paper-sorta: «A Joan pantoja de la cruz de Camara del Rey nuestro señor se deven y estan contados por el buero de su Magestad quarenta y seis mill setecientos y çinquenta mrs que montaron las obras que hizo de su servicio en todo el año passado de mill y seisçientos y dos/y mas otros trejnta mill mrs que hubo de haver por su gajes en todo el dicho año que todo monta setenta y seis mill setecientos y çinquenta mrs la paga delos quales ade ser por mano de francisco guillamas velazquez maestro de la Camara de su Magestad/en Valladolid a diez de henero de mil y seisçientos y tres anos. Hieronimo de quinquoces». Eskerrik asko Félix Labrador Arroyori, aipamen hau emateagatik.
- 17 Ezkondu aurretik, behintzat, Pantojaren emazteak Peraltaren etxean lan egin zuen, eta, beharbada, harreman pertsonal hori ondo joan zen, epealdi luzeetan Pantoja erregearen zerbitzura Valladoliden bizi izan zen bitartean. Era berean, Peralta Pantojaren patroia ere izan ahal izan zen.

1605. urtean, Pantoja Lermara eta Burgosera joan zen. Bertan, erregearen eta erreginaren erretratuak amaitu zituen, eta Ingalaterrako gortearantzako opari moduan bidali ziren. 1606. urtean, El Escorialen egin zituen erreginaren eta bere alaba nagusiaren, Ana Maurizia infantearen, erretratuak. 1607. urtean, El Escorialera itzuli zen, printzearen, etorkizuneko Felipe IV.aren, eta bere arreba nagusiaren erretratuak osatzeko asmoz. Hori dela eta, Pantojak Felipe Manueli egin zion erretratu 1605eko uztailean artista Lermara joan baino lehenago margotu zen inolako zalantzarik gabe, baina, batez ere, Savoiako printzea urte horretako otsailaren 9an Valladoliden nafarriaren ondorioz hil aurretik. Horrela, bada, Bilboko museoko erretratu 1604ko uztailean eta irailaren artean egin zela uste dugu, printzeen partaidetza eduki zuen errege-jardunaldi berria hasi zenean.

Segismundo d'Este enbaxadoreari esker dakigu Pantoja de la Cruzek Italiako printzeen erretratu ofizialak egin zituela eta, horrez gain, kopia ugari egiteko ere eskatu ziotela, Torinora opari moduan bidaltzeko eta Espainiako gorteko nobleen artean banatzeko<sup>18</sup>. Eskaria handia zenez, Pantojak bere tailerrekoen esku utzi behar izan zuen kopia horien betearazpena, nonbait. Edonola ere, aztergai dugun Felipe Manuelen erretratu kalitate handikoa dela kontuan hartuta, agerikoa da maisuaren pintzelak baino ez zuela margotu eta bere laguntzaileek ezertan esku hartu ez zutela. Horren ondorioz, irudi ahaltsua bezain dinamikoa sortu zuen, eta printzeen propagandaren adibide bikaina da benetan. Pantoja de la Cruzek Felipe Manuelen erretratu arrakastatsua bezain ederra egin zuen, errege-erretratuen generoko onenetakoa, alegia. Horrela, Felipe III. aren gorteko kideek begien bitartez egiaztatu zezaketen haren oinordetza dinastikoa printze adoretzu honi esker zegoela ziurtatuta.

Pantoja Valladoliden egon zenean hainbat eta hainbat enkargu jaso zituen, badirudi gorteko beste bi margolariren laguntza jaso zuela eta Italiako printzeak eurentzat ere paratu zirela erretratuak egiteko. Euretako bat Pedro Antonio Vidal (1575-1617) izango litzateke. Felipe III.aren ministroa zein balidoa eta Lermako lehenengo dukea zen Francisco Gómez de Sandoval y Rojasen (1552-1625)<sup>19</sup> ganbera-margolaria zen. Aipamenen arabera, Vittorio Amedeo printzearen erretratu margotu zuen, seme nagusia ezustean hil ostean Savoiako dinastiako hurrengo oinordeko bihurtu zenean. Madrilen, 1617. urtean, Vidalek gaur egun galdua dagoen erretratu originala ordaintzeko eskatu zuen. Bertan, Vittorio margotu zuen, armadura erdia eta behe-galtza horiak soinean zeramatzala. Estilo, formatu eta konposizio horiek Pantoja de la Cruzek erabili zituen Bilboko museoan dagoen Felipe Manuelen aurreko erretratuan<sup>20</sup>. Vidalek Vittoriori egindako erretratu eta une horretan margotu zituen beste bi erretratu Frantziako gortera bidali zituzten opari moduan eta gaur egun galdua daude<sup>21</sup>. Bestea, errege bihurtutako Felipe III.ari egin ziona, Pradoko Museoan dago<sup>22</sup>, eta bizirik zirauten bi

18 Esate baterako, 1618. urtean, Gil Ramírez de Arellanoren bilduman, Savoiako printzeen bi erretratu aurkitu ziren. Ikus Burke/Cherry 1997, I. libk., 66. eta 209. or. Kusche 2007, 400.-401. or., kapadun zalduna Vittorio Amedeo dela dio, 1622an R. de Villandrandoren testamentuan Savoiako Emanuel eta Filiberto printzeen erretratuen bi modelo txiki agertzen direlako. Varela 1999, 200.-201. or.

19 Horrez gain, Vidalek Lermako dukea ere erretratatu zuen zenbait aldiz. Cf. Vigo/.../Toledo 1993, 130. or. Dukea Valladoliden ere paratu zuen, ordura arte ezezaguna Juana de Peralta margolariak gorputz osoz egindako erretraturako. Geroago, 1606. urtean, Felipe III.aren bildumara iritsi zen. 1615. urtearen ondoren, Peraltak Lermari egindako erretratu Madrileko Alkazarrean zegoen esekita. Baliteke Juana de Peraltak Valladoliden senitartekoren bat edukitzea eta Barrionuevo de Peraltaren alaba izatea. Barrionuevok, hain zuzen ere, harreman estua eduki zuen Pantoja de la Cruzekin, eta badirudi azken horrek irakatsi ziola margotzen. Zehatz-mehatz ez dakigu beste erretraturik egin zuen horretaz aparte. Archivo General de Palacio (AGP), Madrid, Sección Administrativa, 902. paper sorta, *Cuentas de cargo...que entraron en poder de Hernando de Espejo (1617-1641)*, orritu gabe: «El Retrato del Duque de Lerma armado en pie guarneçido de dos varas y media mano de Doña Juana de Peralta». Cf. Schroth 1999, 102., 185.-186. or.; 255.-256. or., 1. ir.

20 AGP, Inventarios Generales (Sección Histórica), 82. kutxa, orritu gabe: «Recivese en quenta al dicho Hernando Despejo tres mil setecientos y cinquenta Reales que valen çiento y veinte y siete mil y quinientos mrs en birtud de una zedula de su Magestad firmada de su Real mano [...] fecha en Madrid a primero de Abril de mil y seisçientos y diez y siete anos [...] por haver los pagado por mandado de su Magestad a Pedro Antonio Vidal pintor por los Retratos y obras que hiço de su oficio segun y de la forma que avajo se declara en esta manera: Mil y quinientos Reales por un Retrato de su Magestad [Felipe III] armado con armas negras y un baston en la mano derecha y la yzquierda en la espada y a los pies un globo y todo al natural guarneçido con una moldura de palo santo negro de mas de dos varas y media de alto y de vara y media de ancho el qual dicho Retrato se entrego; Ochocientos y ochenta Reales por un retrato original del Rey Nuestro Señor siendo Principe armado con armas gravadas moradas la una mano en la espada y la otra en el baston con una zelada y su manoplas en el suelo que dicho Retrato segun dicho es entrego el dicho Hernando Despejo a quien le mando su Magestad para llevar le a françia como en la dicha çedula se rrefiere [...]; Setecientos e setenta Reales por un Retrato original del Bitorio Principe de saboya sobrino de su Magestad de medio cuerpo arriba armado con armas gravadas con su bufete y encima del una zelada con sus manoplas y la mano en la espada tiene de alto vara y media y de ancho vara y quarta que quedo en poder el dicho Hernando Despejo [...]».

21 Gaur egun, Vidalen erretratu hori galdua dago. Dena dela, Pantoja de la Cruzek Felipe III.ari printze zenean egindako aurreko erretratuaren arabera egindako kopia izan daiteke, beharbada. Erretratu hori ere ez da gugana iritsi. Bestela, etorkizuneko Felipe IV.aren irudia ere izan liteke.

22 Inb. zenb. 1950. Olioia mihisean. 200 x 135 cm. Cf. Jesús Urrea. «Retrato de Felipe III», in Vigo/.../Toledo 1993, 40. or., 2. zenb., eta Alexandra Millón Maté. «Felipe III», in Madril 2005, 326.-327. or., 89. zenb.





2. Giovanni Caracca (Jan Kraeck) (aktibo 1568 eta 1607 bitartean)  
*Felipe Manuelen erretratu, urtebete zuenean*, 1587  
 Olioa mihisean. 121 x 83 cm  
 Museo Nacional del Prado, Madril  
 Espainiaren Buenos Airesko Enbaxadan utzitakoa  
 Inb. zenb. 1980

printze italiarrak, Vittorio Amedeo eta Emanuele Filiberto, 1606. urtean Espainiako gordea utzi eta Torinora itzuli baino lehen margotu behar izan zuen.

Beste margolariak, Santiago Moránek (?-1626), harreman estua zeukan Pantoja de la Cruzekin, eta, beharbada, haren tailerrean ikasi zuen. 1609. urtean, Felipe III.a erregearen<sup>23</sup> margolaria izan zen, Pantoja hil ondoren postua hutsik geratu zenean<sup>24</sup>. 1607. urtean, Juan María Bussan margolariarekin batera, Lermako dukeak Valladolideko Ribera Jauregian zeukan bildumako margolanen inbentarioa egin zuen, eta erdiak (631 margolan) Felipe III.ari saldu zizkiten aurreko urtean. Dokumentatuta dago Moránek Felipe III.aren eta Austriako Margaritaren<sup>25</sup> erretratuak egin zituela 1615eko apirilaren 30a baino lehen, bai eta Italiako printze gazteena- ren, Emanuele Filibertoren<sup>26</sup>, beste erretratu bat ere, gaur egun galdua dagoen arren. Erretratu berantiarrena Felipe Manuel 1605eko otsailean hil ondoren egin zen seguruenik, eta hildako anaiaren erretratutik hurbil jarri zen. Erretratu hori, hain zuzen ere, Juan Caraccak (Jan Kraeck) margotu zuen 1587. urtean, Felipe Manuelek urtebete besterik ez zuenean<sup>27</sup>. Gaur egun, Pradoko Museoa dago [2. ir.]<sup>28</sup>. Bi erretratuak barruko galerian

23 Santiago Moránena den erretratu bakarra Felipe III.aren alaba zen Margarita Francisca infantari (1610-1617) egindakoa da. 1610. urtearen inguruan margotu zen, eta, gaur egun, Pradoko Museoa dago (inb. zenb. 1282. Olioa mihisean. 100 x 72 cm). Cf. Lucía Varela. «La infanta Margarita Francisca, hija de Felipe III», in Cáceres 2000, 336.-337. or., 6.10. zenb.

24 Angulo/Pérez Sánchez 1969, 68.-73. or., batez ere 68. or., Juan de Ibarra errege-idazkariak idatzitako agirirako: «no era [Morán] en las obras [y Bosques] como los demás, sino en la casa de su Magestad y que tenía sus gajes consignados en el maestro de camara y el asiento en los libros del Bureo y por eso no se le dio cédula».

25 AGP, Secc. Admin., 902. paper-sorta, 249. or. (1621. urtearen ostekoa): «[...] por un Retrato original de la Reyna nuestra señora siendo princesa de dos baras y media de alto y vara y media de ancho vestida de tela rica de oro y plata guarneçida de passamanos de oro y plata, con las Joyas ricas y botones de a tres diamantes y cintura y una sarta de perlas blancas y encarnados en la gorra y una Joya de diamantes en medio, la una mano en una silla y la otra en un lienço de puntas con cortina carmesi que hizo Santiago Moran [...]; por un Retrato original del Rey Don Phe[lippe] 3o nuestro señor que aya Gloria del mismo tamaño que el en la partida antes desta con armas negras perfiladas de oro, calça negra de obra, la una mano en el baston y la otra en la celada questa sobre un bufete con sobre messa de terciopelo negro y cortina de lo mismo y suelo enlossado que hizo el mismo Santiago Moran [...]». Kontu horietan, Margarita erreginaren gorputz osoko beste erretratu bat aipatzen zen. Beltzez jantzita zegoen. Esku batean, abanikoa zeraman; eta bestean, zapia. Moranek egin zuen, eta Madrilera Alkazarreko Galería de Adentro delakoan zegoen. AGP, Secc. Admin., 902. paper-sorta, 1. or.: «Relacion de las Pinturas que quedan en la guardajoyas que no estan entregadas a D. Joan Pacheco y quedan por quenta Hernando de Espejo».

26 AGP, Secc. Admin., legajo 902, *Cuentas de cargo... que entraron en poder de Hernando de Espejo (1617-1641)*, orritu gabe: «30 de abril 1615, Aranjuez. Su Magestad manda que embeis luego de Valladolid las pinturas originales que se truxeron de la galeria de la cassa Real de alli para que vuelvan a poner donde estavan, y vayan de suerte que no reciban daño».

27 Inb. zenb. 1980. Olioa mihisean. 121 x 83 cm. Espainiak Buenos Airesen daukan enbaxadan gordailatua. Era berean, AGP, Secc. Admin., 902. paper-sorta, «Relacion de las Pinturas que quedan en la guardajoyas que no estan entregadas a D. Joan Pacheco y quedan por quenta Hernando de Espejo», 1v. or.: «Otro retrato del Principe filiberto de Saboya armado con calzas amarillas dellas Rodillas arriba» [marjina: «Principe Filiberto Sant. Moran»]; «Otro retrato entero del Principe felipe de saboya niño con una gineta en la mano y papagayo al cavo della» [marjina: «Principe felipe de Saboya»].

zeuden esekita, beste anaienak bezala. Azken horiek aurrerago aztertuko ditugu. Antza denez, Moráñen erretratua eta Pedro Antonio Vidalek Vittorio Amadeori egindako eta galdutako erretratua berdinak ziren formatuari eta betearazpenari begira. Margolanean, hain zuzen ere, armatuta eta, anaiak bezala, behe-galtza horiak soinean zituela agertzen zen Emanuele Filiberto<sup>29</sup>. Savoiaiko printzeen erretratuen serieak eta Espainiako errege-familiarenak, garai hartan erregeak Valladoliden zeukan bildumakoak, Madrileko Alkazarrera itzuli ziren 1615. urtean, eta zenbait galeriatan zehar banatu ziren. Bertan, gainera, Felipe III.aren, Margarita emaztearen, euren seme-alaben eta Austriako Etxeko beste senide batzuen erretratuak ere bazeuden esekita.

## Juan Caracca (Jan Kraeck): Flandesko margolaria Torinoko eta Madrileko gorteetan

Europako gorteetan zehar sakabanatutako senideen eta ahaideen artean zeuden denbora, espazioa eta urruntasuna gorte bakoitzean bizi ziren enbaxadoreen bitartez eta sarritan idatzitako gutunen bidez leuntzen zen nolabait esateko. Felipe II.ak 1585. urtetik aurrera Torinoko gortean zegoen Katalina Mikaela alabari idatzi zizkion gutunek azpimarratu egiten dute euren harremana estua zela eta opari zein gorte-erretratu ugariren trukearen bidez indartzen zutela. 1586an bere lehen semea, Felipe Manuel, jaio zenean, Katalinak seme-alaben erretratuak bidali zizkien aitari eta Isabel Klara Eugenia ahizpari. Margolanotan, erregearen ilobak agertzen ziren euren garapeneko eta hazkuntzako zenbait une garrantzitsutan. Zazpi seme-alaben erretratuak egiteko zeregin berezietarako, Katalinak Flandesko Jan Kraeck (?-1607) margolariarengana jo zuen. Espainian, Juan Caracca, Carracha, Carranza edo Carraza ere esaten zioten. Savoiaiko gortearen zerbitzura zegoen<sup>30</sup>, eta Katalinaren aitagarreba zen Emanuele Filibertoentzat ere lan egiten zuen 1568. urteaz geroztik<sup>31</sup>. Katalinak oso kontuan hartu zuen bere aitaren gortean antzina-antzinatik umeen zein nerabeen erretratuak egiteko sustatutako eta Alonso Sánchez Coello gorte-margolariak irmotasunez ezarritako erretratu-tradizioa. Printze gazteei egindako erretratuetan, Sánchez Coellok finkatutako pintura-ohiturak eredu izan ziren Espainian zein beste leku batzuetan Austriatarren zerbitzura zeuden beste margolari batzuentzat. Errege-erretratuak egiteko orduan, Katalinak Austria Etxearen estiloa sustatu zuen Torinon, eta, estilo hori sendotzeko, berarekin eraman zituenak eta, Italian emandako urteetan, Espainiako gortetik aldian-aldian jasotzen zituenak izan ziren eredu onenak.

Sarritan, zenbait adinetan eta jantzitan margotutako errege-etxeko umeen irudi horiek berdinak ziren dimentsioei eta formatuari begira, eginkizun, espazio edo kokapen berezietara egokitu behar zirelako esekitzeko aukeratutako lekuaren arabera. Batzuetan, erretratu txikiak ziren eskalari eta antolamenduari dagokienez, pribatutasunean, modu intimoagoan ikusteko erretratuak zirelako. Horixe bera gertatu zen 1589. urtean, Savoiaiko dukeak bere aitagarrebari Caraccak<sup>32</sup> Katalinari zein seme-alabei miniaturan egindako erretratuak biltzen zituen liburu txikia bidali zionean. Izan ere, antz handia izan zezaketen Caraccak Katalinari, senarrari eta seme-alabei miniaturan egin zien talde-erretratuarekin [3. ir.]<sup>33</sup>.

28 Turin 2005, 36. or., 9. ir.

29 Hori guztiori kontuan hartuta, badirudi Vidalek Vittorio Amadeori eta Moranek Emanuel Filibertori egindako erretratuek Pantojak Felipe Manueli egindako erretratuaren tamaina berbera eduki nahi zutela.

30 Caraccak Torinon egindako egonaldia eta Savoiaiko gortean sustatutako giro kulturala sakonago aztertzeko, ikus Bava 1998.

31 Turin 2005, 27.-44. or. Era berean, Spivakovsky 1975, 107. or., Felipe II.ak Katalina Mikaelari idatzitako gutuna, 1589ko uztailearen 6an (XXXV. gutuna): «con lo que decís de mys nietos he holgado mucho, y con un lybrillo quel Duque me embió de vuestro retrato y los suyos, / aunque más holgaría de veros a vos y a ellos». Gutun honetan, erregea pozik dago Torinoko erretratuak jaso dituelako, baina gurago izango zuen alaba eta ilobak zuzenean ikusi. Gorte-erretratuak ez ziren beti irudi ofizial moduan margotzen, sarritan arrazoi sentimentalegatik egiten zirelako, hau da, senideen eta ahaideen ikusizko ordezkari moduan erabiltzen ziren, gaur egungo argazkien antzera. Cf. Serrera 1990, 48-49. or.

32 Turin 2005, 32.-33. or., 38. zenb. 1585. urtean, Caraccari honengatik ordaindu zitoten: «molti ritratti grandi e piccoli di Sua Altezza e della Ser.ma Infante».

33 Abelló Bilduma, Madril. Olioa mihisean. 64,2 x 51 cm. Aurreko enkantea hementxe egin zen: *Old Master Paintings*, Sotheby's, Londres, 2006ko uztailearen 6a, 6032. salmenta, 136. lotea. Kusche 2007, 54. or. Karlo Emanuele Annunziatiko ordena eta San Mauriziooren gurutzea daramatza lepotik zintzilik.





3. Giovanni Caracca (Jan Kraek) (aktibo 1568 eta 1607 bitartean) *Savoiako Karlo Emanuele I.a eta Katalina Mikaela infantaren familiako talde-erretratua* (Filippo Emanuele, Vittorio Amedeo, Emanuele Filiberto eta Margherita seme-alabekin), c. 1590-1600 Olioa mihisean. 64,2 x 51 cm Abelló Bilduma, Madril



4. Giovanni Caracca (Jan Kraek) (aktibo 1568 eta 1607 bitartean) *Felipe Manuelen erretratua, bost urte zituenean*, 1591 Olioa mihisean. 128 x 91 cm Museo Nacional del Prado, Madril Inb. zenb. 1264

Caracca birritan egon zen Espainiako gortean, 1585ean eta 1591n<sup>34</sup>, hain zuzen ere, Karlo Emanuele dukearen segizioan. Espainian egon zen bitartean, Alonso Sánchez Coelloren, Sofonisba Anguissolaren eta Juan Pantoja de la Cruzen estiloak miretsi ahal izan zituen, eta eragin ikaragarria eduki zuten Katalina Mikaela infantarentzat Torinon egin zituen erretratuetan. Bere seme nagusia, Felipe II.aren lehenengo iloba, jaio ondoren, Katalinak Caraccak Felipe Manueli egindako erretratua bidali zion aitari 1587. urtean. Gaur egun, Pradoko Museoan dago [2. ir.]. Infante txikia bere maskotak diren txakur eta papagaioarekin agertzen da, *baquero* izeneko ume-jantzi espainiarra darama soinean eta infanteriako lantza edo jineta bereizgarria darama eskuan, borla apaingarria eta guzti<sup>35</sup>, beragan jarritako itxaropen militarren adierazgarri. Infanteriako kapitainen lantza bereizgarri horrek Felipe Manuel txikiaren etorkizun militarra iragartzen zuen, Austria Etxearekin senidetetasuna zeukan Savoiako printzea zelako. Kontzeptu hori indartzeko, beste irudi militar baten estatuatxoa agertzen da bere alboan dagoen mahaian. Antzeko baliabideak sarritan agertzen ziren Sánchez Coellok, Espainiako infanteei, Katalina Mikaelaren nebei, egindako erretratuetan. Horixe, hain zuzen ere, Torinotik Madrilerida bidalitako erretratuaren serie luzeko lehenengoa izan zen, eta Felipe II.ak atsegin handiz hartzen zituen, 1591n alabari idatzi zion bezala, Karlo Emanuele dukeak berak emaztearen eta seme-alaben erretratua Espainiara eraman zionean<sup>36</sup>, Caraccak Felipe Manueli bost urte zituela egin zion erretratuarekin batera. Gaur egun, Pradoko Museoan dago azken erretratu hori [4. ir.]<sup>37</sup>. Bere erretratu goiztiarrean bezala, printze gaztea irudi militar moduan agertzen da berriro, eta etorkizuneko garaipen militarren iragarpena diren armak eta elementuak daramatza eskuan: ezpata, parada-kasketa eta bolizko inkrustaziodun arkabuza.

34 1591. urtean, El Escorialen egin zituen Felipe II.aren, Isabel Klara Eugeniaren eta Felipe printzearen erretratuak. Irudi horiek eta kopia zituenean beste batzuk eraman zituen Torinora. Igarobide-zedularako, ikus Bouza 1998, 180. or., eta Pérez de Tudela 2001, 486. eta 487. or.

35 Inbentarioaren azalpenerako (1615. urtea baino lehenagokoa), ikus 27. oharra. Jineta lantza laburra zen, urre-koloreko burdina zeraman eta borladun goarnizioa zeukan.

36 Spivakovsky 1975, 126. or., Felipe II.ak Katalina Mikaelari idatzitako gutuna, 1591ko apirilaren 28an (LV. gutuna): «el Duque [...] que ha llegado tan bueno que he holgado mucho de verlo y también de los retratos de todos mis nietos y de su madre». Era berean, Bouza 1998, 179.-180. or., XCV. gutuna.

37 Inb. zenb. 1264. Olioa mihisean. 128 x 91 cm. Fernando Bouza Álvarez. «Felipe Manuel de Saboya, príncipe de Piamonte, a los cinco años de edad», in Madrid 1998, 415.-416. or., 105. zenb.; David García López. «Felipe Manuel de Saboya a los cinco años», in Cáceres 2000, 334.-336. or., 6.9. zenb. 1595ean, Caraccak beste erretratu bat egin zion Vittorio Amadeori. Gorritz jantzita zegoen, FERT eta Savoiako korapiloa brodatuta zeuzkan banda zeraman eta oso antzera zegoen paratuta. Margolan hori hementxe agertzen da: Turin 2007b, 10.-13. or. Urte horretan bertan, seme nagusiaren argazkia ere egin zuten bederatzirek zituela. Bota militarrek zeramatzen, eta armadura-gola zeukan lepoan. Atzeko aldean, kanoia zegoen; eta zoruan, kasketa. Margolan horretarako, ikus Turin 2005, 34.-35. or., 12. eta 13. ir.

Gehienak guganaino iritsi ez diren arren, Savoiaiko printzeen zazpi erretratuko seriea zegoen esekita Madrileko Alkazarreko gela batean, Katalina Mikaela eta Karlo Emanuele gurasoen gorputz osoko bi erretraturen alboan. Guzti-guztiak Caraccak margotu zituen. Savoiaiko Etxearen erretratuen galeria Diego Cuelbisek ikusi eta azaldu zuen 1599. urtean<sup>38</sup>. Felipe IV.aren erregealdiaren hasieran, 1621. urtetik aurrera, gortea Madrilera itzuli zenean, Caraccak Savoiaiko printzeei egindako bost erretraturen xehetasunak ematen dira, eta errege-erreginen bitxi-gordelekuko bi gelatan zeuden esekita, barruko galerian<sup>39</sup> zein kanpoko galerian<sup>40</sup>, hain zuzen ere. Euren alboan, Haarlemeko margolariak euren gurasoei egindako erretratuak zeuden jarrita, «eskaileratik igota zegoen bigarren gelan»<sup>41</sup>. Printzeen umetako bost erretratu horietatik, lau 1587tik 1591ra bidali ziren Torinotik. Aurrerago aztertuko dugun bosgarrena, ordea, Santiago Moránek 1605. urtearen ostean Emanuele Filibertori Valladoliden margotutako erretratu da. Caraccak eta bere tailerrak Katalina Mikaelaren seme-alabei egindako zenbait erretratu Torinon eta Italiako beste bilduma batzuetan daude gordeta, eta argi eta garbi azaltzen digute nolakoak ziren Espainiara bidalitako bertsioak<sup>42</sup>. Ondoren, Alkazarreko dekorazioan azaldu zituzten 1636. urtean<sup>43</sup>, baina orduan banatuta zeuden jada, erretratu asko zituzten piezetan egon arren.

38 Bouza 1998, 179. or., 390. zenb.; Checa 1994. Hil zenean, Felipe II.aren bitxi-gordelekuan gure printzearen arbasoen bi erretratu baino ez dira deskribatzen Madrileko Alkazarrean. Sánchez Cantón 1959, 232. or., 3.980: «Otro retrato entero, en lienzo, al ollio, del Duque de Saboya [agian, Emanuel Filiberto «Testa di Ferro»], armado, con calzas blancas y collar de la Anunciada y una banda azul en el brazo derecho, con un perro a los pies: tiene de alto dos varas y una ochaba y vara y quarta de ancho. Tasado en treynta ducados»; eta 234.-235. or., 4.003: «Otro retrato entero, en lienzo, al ollio, del Duque de Saboya [Carlo Emanuele I?], armado con calzas blancas, con un pajecillo bestido de verde, que le lleva las manoplas; tiene de alto dos varas y una sesma y de ancho una vara y cinco dozabos. Tasado en cinquenta ducados». Vigoko Udal Museoa, olio-erretratu dago (inb. zenb. 50), eta 1935ean eskuratu zuten Madril. Fisonomia Argentak Savoiaiko Emanuele Filibertori margotu zizkion erretratuetako antzekoa da, sinbolo bereizgarriak ez daraman arren. Egia esan, ez da Alejandro Farnesio, gaur egun katalogoan agertzen den bezala.

39 AGP, Secc. Admin., 902. paper-sorta, bitxi-gordelekua, «Relacion de las Pinturas que quedan en la guardajoyas que no están entregadas al s.r don Joan Pacheco y quedan por [uen].ta del s.r her.do despejo», 1 r eta v or.: «un retrato entero de un hijo del duq[ue] de saboya con baquero con la mano izquierda jugando con un perrillo en marco dorado» [marjina: «hijo del duque de saboya»]; «otro retrato del Principe filiberto de saboya armado con calças amarillas de las Rodillas arriba» [marjina: «Principe Filiberto Sant.o Moran/ R.do en q.ta a H.do Desp. jo»]; «otro retrato entero del Principe Felipe Manuel de Saboya en camisa sentado en una almoadá» [marjina: «Felipe manuel de saboya»]; «otro retrato entero del Principe Felipe de Saboya siendo niño con una gineta en la mano y un papagayo al cavo della» [marjina: «Principe Felipe de Saboya»]. Idazpen horiek berregitean, akatsak egin dira transkripzioan eta agiri originala desagertu dela adierazi da: Martínez Leiva/Rodríguez Rebollo 2007, 192. or.

40 Ibid., *Cuentas de cargo... que entraron en poder de Hernando de Espejo (1617-1641)*, 1v. or.: «En la Galeria de Afuera: otro Retrato de pinzel al olio de un hijo del duque de Savoya en carnes con una paloma en las manos con marco de madera dorado» [marjina: «hijo del duque de Saboya»].

41 Cf. Bava 2005, 15. zenb.; Sluiter 2005, 16. zenb. Era berean, AGP, Secc. Admin., 902. paper-sorta, *Cuentas de cargo... que entraron en poder de Hernando de Espejo (1617-1641)*, 1v. or.: «Mas retratos. Un Retrato de la Rodilla arriba en lienço al olio de Duque de Saboya armado en calças amarillas y un baston en la mano derecha y una vanda roja al cuello la çelada sobre una messa tiene de alto vara y siete ochavas y de ancho vara y sesma es original de mano de Juan Carraza. Otro Retrato del mismo tamaño en lienço al olio la señora Infanta Doña Catalina muger del Duque de Saboya vestida de negro con puntas y botones cinta y collar y una sarta de perlas al cuello de dos bueltas puesta la mano yzquierda sobre una silla y en la derecha un lienço original del dicho Juan Carraza». Seguruenik, horietatik izan ziren 1615ean Valladolidetik ateratu zituztenak, El Pardorako kopietarako eredu moduan erabiltzeko. Cf. Lapuerta 2002, 508. or., 77. agiria. El Pardoko erretratuen galeriaren berreraikuntza xehetasunez aztertzen da 405.-442. or.

42 Turin 2005, 33.-37. or., 9.-18. ir.

43 Martínez Leiva/Rodríguez Rebollo 2007, in «Pieça Terçera del passadiço [5]», 74. or., 97. zenb.: «Otro lienço al olio y en él un retrato entero del Duque de Saboya siendo moço, armado y con calças y mangas blancas y un perro blanco grande»; 75. or., 116. zenb.: «Un retrato al olio de medio cuerpo arriba que es el Duque de Saboya armado, con un bufete, una çelada y manoplas y bastón en la mano»; 76. or., 128. zenb.: «Un retrato de medio cuerpo arriba del Príncipe Filiberto con armas sembradas de soles y una cruz blanca en el pecho», zeina baliteke Santiago Moranena izatea. Orain dela gutxi, Katalina Mikaelaren hirugarren semea den Emanuele Filiberto di Saboyaren erretratu jarri dute salgai. 1602. urtean margotu zuten, 76 x 88 cm-ko neurria du eta. San Joaneko priorea denez, gurutze zuri handia agertzen da armaduran. Urre-koloreko eguzkidun peto bioletarako, ikus Bava 1995, 279. or., 70. tav. «Pieça obscura, junto a la galería de mediodía [21]» lanean, 92. or., 634. zenb.: «Un retrato al olio de poco más de una vara de ancho, con moldura dorada y negra, que está el Duque de Saboya, padre del Príncipe Filiberto, armado, tiene mangas de malla y calças blancas con un bastón en la mano izquierda y en el cuello y braço unas bandas açules» (153. or., El Escorialakoarekin identifikatzen dute, eta Filibertoren aitonarena izango litzateke. Karlos III.aren garaian, Erretiro Onaren Jauregian egindako inbentarioan, 289. zenbakia darama, Fernández-Miranda 1988, 279. or., 2652. zenb.). Sofonisbak egin zuen *Felipe II.a arrosarioarekin* lanaren alboan egongo litzateke. Gaur egun, Pradoko Museoa dago; 636. zenb.: «Otro retrato al olio halgo mayor, con moldura dorada y negra, en que está uno de los hijos del dicho Duque de Saboya vestido de blanco en un carretón y sobre un bufete cubierto de carmesí un perrillo y cortina verde». «Pieça de las bóbedas que tiene puerta al jardín nuevo de la huerta de la priora [38]» lanean, 116. or., 1031. zenb.: «Un lienço con un retrato de un Príncipe de Saboya que se llama Phelipe Manuel, con una lançilla en la mano, un perro blanco al lado hizquierdo y un papagayo ençima una ventana, tiene moldura dorada» (177. or., honekin identifikatzen dute: 2. ir. (Museo Nacional del Prado, inb. zenb. 1980); 1324. zenb. zuria Karlos III.aren Erretiro Onaren egindako inbentarioko da, Fernández-Miranda 1988, 351. or., 3687. zenb.); 1039. zenb.: «Otro retrato del duque de Saboya armado y con calças blancas, con un pajecillo bestido de verde que le lleva las manoplas», Felipe II.aren bildumakoa da. Erretiro Onaren Jauregian, Felipe Manueli 1591n egin zioten erretratu ere azal tzen da (4. ir.), Fernández-Miranda 1988, 351. or., 3674. zenb. (1311. zenb. zuriz).

Madrialeko Alkazarreko erretratuen galeriak errege-propagandarako erabiltzen ziren, gela berezi batean Savoia Etxearen erretratu guztiak elkarren ondoan jarrita dituen galeria honetan gertatzen den bezala. Savoia printzeen erretratuek Espainiako gortearen harreman politiko eta familiarrak azpimarratzen zituzten, eta, aldi berean, Felipe III.aren zein bere familiaren ikusizko genealogiak ziren<sup>44</sup>. Erretratuen galeriek zeregin handia zeukaten Felipe II.aren aurreko erregealdian. Izan ere, El Pardoko ehiza-jauregian Austriatarren dinastiari buruz zeukaten erretratuen bilduma eredu moduan erabili zuen bere semeak. Felipe II.aren erregealdiko margolari ospetsuenek, hau da, Tizianok, Antonio Morok, Sánchez Coellok eta Jooris van der Straetenek egindako berrogeita bost erretratuko galera bikain hori 1604an gertatutako sute suntsitzailearen ondorioz galdu zenean, Felipe III.ak familiaren hogeita hamabost erretratuk osatutako serie berria sortzea erabaki zuen, eta bere margolaria zen Juan Pantoja de la Cruz egin zion enkargua<sup>45</sup>. El Pardoko galeria berriaren hasierako ideia arabera, Felipe III.ak Katalina Mikaela arrebaren, haren senarra zen Karlo Emanuele I.aren eta euren bi semeeren, Vittorio Amadeoren eta Emanuele Filibertoren, erretratuak ere jarri nahi izan zituen bertan, sutean desagertutako aitaren galerian ez bazeuden ere<sup>46</sup>. Enkargu horiek egiteko, Pantojak Caraccak Katalina Mikaelari eta haren senarrari egin zizkien eta Valladolideko Errege Jauregian zeuden erretratuak kopia zituen. Horrez gain, 1604tik 1606ra Savoia printze gazteei egin zizkien erretratuak ere aurkeztu zituen. Valladoliden egin berri zituen erregearentzat, eta Pantojak Felipe Manueli egindako erretratuen konposizio-aldaerak ziren. Azken erretratu hori Bilbon dago gaur egun [1. ir.]<sup>47</sup>.

## Juan Pantoja de la Cruz eta Alonso Sánchez Coelloren legatua

Errenazimentuko gorteen egitura konplexuaren barruan, erretratuek eta erretratugileek oso zeregin garrantzitsua zeukaten gorteko bizimoduan zein politikan. Gaur egun argazki eta irudi digital modernoekin gertatzen den bezala, errenazimentuko erretratuek modu bakar bezain erabakigarrian lotzen zituzten jendea eta gortek. Garai hartan, gobernariak eta printzeak gaur egungo informazio-bideen baliabideak, Internet edo digitalizazioa, ez zeukatenez, erretratuak eta erretratugileak enbaxadore kulturalak ziren gorteen arteko truke diplomatiko nahaspilatuetan. Erretratuek itun politikoak indartzen zituzten, adiskidetasunak sendotzen zituzten, ezkontza dinastikoak zigilatzen zituzten eta bizirik nahiz hilda zeuden senideen ikusizko ordezkotza ziren. Erretratuek urruntasunak, espazioak eta denborak banatutako senitartekoak eta ezagunak lotzen zituzten, eta senideen zein adiskideen desagertzea sortutako mina arintzen zuten. Errenazimentuan estatusari, familiari, zeremoniari eta etiketari ematen zieten garrantziak eragin handia zeukan Espainiako gortean erretratuak erabiltzeko eta jartzeko zeukaten moduan.

XVII. mendearan hasieran, Felipe Manuel eta bere anaiak pertsona nabari bihurtu ziren Savoia gortearen eta Espainiaren artean zegoen egoera politiko konplexuan. Hiru anaia nagusiak Espainiako gortera bidali zituzten, politikako nahiz zehurtzia diplomatikoko beharrezko arteak ikasteko eta, beharrezkoa izanez gero, Espainiako gorteko postu politiko zein militarren euren gain hartzeko. Era berean, Espainiako politikak

44 Espainiako errege-bildumetako erretratuen galeriak sakonago aztertzeko, ikus Jordan 1998.

45 Kusche 1996; Kusche 1999; Lapuerta 2000; Lapuerta 2002, 431. or.; Kusche 2007, 153.-168. eta 284. or.

46 Proiektuko geroagoko fase batean, loben erretratuak erretratuen aretoko programa pikturikotik kendu zituzten, eta, bertan, Katalina Mikaelarena eta senarrarena baino ez ziren eseki. Nolanahi ere, 1614an El Pardon egindako inbentariotik (AGP, Administrativa, 768. paper-sorta, 3. espediente), behintzat, honako hauexek deskribatzen dira Galería del Mediodía izenekoan: «otro Retrato de medio cuerpo del príncipe Vitorio sin marco/ otro Retrato de medio cuerpo del príncipe filiberto sin marco». Inventario horretan, antzeman zen aitari gorputz erdiz eta urrekoloreko zein kolore beltzeko markoarekin egindako erretratu zegoela, erretratuen aretoan zegoena kontuan hartu gabe. Mansfeld bildumakoa zen, eta landako ateko bebaruan zegoen eginda. Savoia printzeen bi erretratuek 159. eta 160. zenbakiak daramatzate 1653ko inbentarioan, eta urrekoloreko zein kolore beltzeko markoa jarri zieten (AGP, Administraciones Patrimoniales, El Pardo, 9404. kutxa, 3. espediente). Gela honetan, 1700. urtean jarriko dituzte berriro, Fernández Bayton 1981, 145. or., 146. eta 147. zenb.

47 Gaur egun, lau erretratu hauek galduta daude. Cf. Lapuerta 2000, 30. eta 36. or.; Kusche 1964, 265.-268. or., baina, batez ere, 266. or.: «Mas otro retrato del P[ríncipe] Victorio armado, con calzas moradas bordadas y cortina carmesi y en la mano un baston. Mas otro retrato de P[ríncipe] e Filiberto armado, con calzas carmesies y cortina verde revuelta a una columna y la mano sobre la espada y otra sobre un morion, questa sobre un bufete». Agiri originalaren arabera aipamena da.

Frantziari begira zehaztutako politikaren barruan erabakigarria zen estatu italiarraren leialtasuna ziurtatzen zuen koroa espainiarrak. Pantojak Felipe Manueli egindako erretratuan, printze adorea agertzen da, etorkizun bikainari aurrez aurre begira. Azken batean, erretratuak mezu lasaigarria igorri nahi zion Felipe III. aren gorteari [1. ir.]. Pantojak lan honetan erabili zituen teknika formalak eta oinarritzat hartutako tradizio piktorikoak zenbait hamarkada lehenago ezarri zituen bere maisua izandako Alonso Sánchez Coellok, eta, aldi berean, Austriatarren gorteak Bruselan zeukan Antonio Moro margolari ospetsua izan zen Alonsoren irakaslea<sup>48</sup>. Austria Etxeko erretratu bereizgarrien estilo horretako elementu flandestarrei eutsita, Pantojak zehaztasun handiz islatzen ditu xehetasunak, hau da, jantziak, osagarriak eta bitxiak zehatz-mehatz margotzen ditu. Euren aurpegietan, azterketa psikologiko sakona egin duela igartzen da, eta pertsonaien buruak ageriko plastikotasunaz eginda daude. Nolanahi ere, jarrerak zurrunk direnez, izoztuta daudela dirudi. Bere azken erretratu askotan, irudiak estatikoak dira, eta konposizio geometrikoa eraten dute. Alderdi estilistikoari begira, Pantojaren estiloa Antonio Moro edo Sánchez Coello aurrendariena baino itxuratiagoa da. Bakunagoa da, eta, aldi berean, sakontasun optikoa murrizten du. Aukera hori, hain zuzen ere, mendearen erdialdeko Espainiako erretratugintzaren ezaugarrietakoa izan zen. Bere estiloa azaltzeko izenondo egokiena «itxurati» izan liteke, hau da, irtenbideak eta formula piktorikoak behin eta berriro erabiltzen dituenenez, estiloa petrifikatu egin da.

Orain dela gutxi, Sarah Schrothek egiaztatu egin du Pantoja de la Cruzek eta bere zirkuluko beste margolari batzuek ikusizko lengoia berria eta estilo goratua sortu zituztela, Felipe III.aren premia eta interes politikoen berri emateko orduan<sup>49</sup>. Autorearen esanetan, diseinu linealaren abstrakzioa eta kolorea ziren ezaugarri nagusiak. Kolorea, hain zuzen ere, Pantojaren lanen printzipio bateratzailea da, eta, bertan, benetako pertsona ikonoaren antzeko irudi urrun bihurtzen da. Erretratu ofizialetan, Pantojak argi eta garbi adierazi nahi zuen erregea ezkutuan egon behar dela eta hurbilgaitza izan behar zela. Aztergai dugun Felipe Manuelen erretratu bikaina Pantojak Felipe III.arentzat eta bere gortearentzat monarkiaren inguruan lortu nahi zuen ikuspegi eta gidalerro berrien adierazgarri da benetan. Bere geometrizazioa, ordea, Sánchez Coellok errege-erretratuak egitean erabiltzen zuen soiltasunetik ateratako aurrerapena da.

Pantoja Valladoliden jaio zen 1553. urtearen inguruan, eta, gazte-gaztetan, Madrilera joan zen, Alonso Sánchez Coello<sup>50</sup> margolari valentziarraren estudioan sartzeko. Sánchez Coello, hain zuzen ere, Felipe II.a erregearen (1527-1598) eta Portugaleko printzesa zen Austriako Joana arrebaren (1535-1573)<sup>51</sup> erretratugilea eta ganbera-margolaria izan zen Espainiako gortean. Askotan, Pantojak Sánchez Coello bere «maisua»<sup>52</sup> zela esan zuenez, Altxorraren Etxean<sup>53</sup>, Madrilako Alkazarraren inguruan zeukan tailer jendetsuko ikaslea izango zen seguruenik. Bere maisua 1588an hil zen arte, Pantojak Sánchez Coelloekin eta tailerreko beste margolari batzuekin lan egin zuen. Besteak beste, horra hor, hurrenez hurren, Benifairókoaren alaba eta anaiordea ziren Isabel eta Jerónimo Sánchez eta Felipe de Liaño miniaturista ospetsua. Epealdi horretan, Pantojak lan gutxi sinatu zituen, bat edo beste, agian, Sánchez Coellori azken zeregin askotan lagundu bazion ere. Coellok une hartan idatzitako azken gutunetako sinadura oso dardaratia zenez, badirudi artean pintzela trebetasun larregiz erabiltzen ez zuela eta, horren ondorioz, tailerrak bete-betean parte hartzen zuela bizitzaren azken tartean egin zituen margolanetan. 1588. urtean Coello hil ondoren, Pantoja margolari independente egin zen, eta errege-familiarentzako lanak egin zituen, baina, batez ere, Felipe printzearentzat

48 Annemarie Jordan Gschwend. «Juan Pantoja de la Cruz. Retrato del Archiduque Alberto de Austria. Retrato de Isabel Clara Eugenia», in Madrid 1999, 145.-147. or., 5.-6. zenb.; Jordan 2006.

49 Schroth 2000.

50 Jordan 1994; Annemarie Jordan Gschwend. «Alonso Sánchez Coello», in Lisboa 1995, 458. or.; Mulcahy 2006.

51 1557. urtetik Sánchez Coellok «pintor de la Serenissima princesa» zela dioten agiriatarako, ikus Jordan 1999.

52 Sánchez Cantón 1947, 99. or.

53 La Casa del Tesoro (Altxorraren Etxea) errege-margolarien etxea eta estudioa izan zen Espainiako gortean XVIII. mendera arte. XVI. menderako, ikus Jordan 1998, 60-62. or.; Kusche 2003, 339.-387. or.



5. Jooris van der Straeten (?-1577)  
*Karlos printzearen erretratu*, c. 1565  
Olioa mihisean. 98,5 x 85 cm  
Ondare Nazionala, Errege Oinutsen Monasterioa,  
Madril  
Inb. zenb. 00612065

eta Isabel Klara Eugeniarentzat. Izan ere, euren abala eman zioten, Felipe III.aren erregealdiko margolari ofiziala izan zedin. Savoia-ko Felipe Manuel printze nerabearen erretratu honetarako, Pantojak Sánchez Coellok ezarritako tradizioari eutsi zion. Coellok errege-etxearen zerbitzura hainbat urte eman zituen, errege-odoleko printze ume eta nerabeen erretratuetan espezializatu zen. Ume eta gazteen erretratuok Austria Etxeko kideen enkarguak ziren, eta zenbait eginkizun betetzea zeukaten helburu. Irudi batzuk oroigarri pertsonalak ziren, eta modeloak euren gaztaroko, hazkuntzako eta garapeneko zenbait etapatan agertzen ziren. Sarritan, gainera, erretratu horien kopia egiten ziren, beste gorte batzuetan finkatutako senitartekoei bidaltzeko. Habsburgo printze nerabeen beste erretratu batzuk ordezkatzeko asmoz enkargatu zituzten, erretratuen galeriako serie koherentearen barruan hurrengo dinastiaren oroigarri izateko. Austriako Joanak hogeita bat erretratuko antzeko zikloa eduki zuen Madrileko Errege Oinutsen komentuan, eta bere garaiko erretratugile nagusiek margotu zituzten: Antonio Moro, Alonso Sánchez Coello, Cristóbal de Morales, Jooris van der Straeten eta Sofonisba Anguissolak. Guztiei marko berdinak jarri zizkieten, guztiak euskarri berdinean, mihisean, margotu zituzten eta guztiek antzeko neurriak dauzkate (97 x 85 cm, gutxi gorabehera). Joana printzesaren erretratuak eta, batez ere, bere loba zen Karlos printze armaduradunaren erretratuak, Jooris van der Straetenek margotu zuena [5. ir.] eta oraindik Errege Oinutsen komentuan *in situ* dagoena, programa piktoriko berezia osatzeko enkargatu zituzten, familien arteko loturak eta ikusizko genealogiak azpimarratzeko asmoz. Bere semea zen Sebastian printzea Portugaleko errege bihurtu zen, eta Lisboako gortean erretratuak egin zizkieten opari moduan bidaltzeko. Erretratuok, hain zuzen ere, printzeen serie horretako «koroaren altxorra» dira benetan<sup>54</sup>. 1565ean Espainiako koroako oinordekoa izan zen Karlosen irudian, ondo baino hobeto zehazten ziren Antonio Morok eta Sánchez Coellok ezarritako eta Van der Straeten laguntzaile flandestarrak leialtasunez eutsitako irtenbide piktorikoak:

54 Jordan 1994, 116-127. or.





© Babestutako materiala

6. Antonio Moro (c. 1516/1519-1576)  
*Felipe II.aren erretratua, San Kintingo batailako armadura jantzita duela*, 1560  
 Olioa mihisean. 200 x 103 cm  
 Ondare Nazionala, Austriarren Jauregia, El Escorial, Madril  
 Inb. zenb. 10014146



© Babestutako materiala

7. Tiziano Vecellio (c. 1485-1576)  
*Felipe II.aren erretratua, armatuta*, c. 1550-1551  
 Olioa mihisean. 193 x 111 cm  
 Museo Nacional del Prado, Madril  
 Inb. zenb. 41



© Babestutako materiala

8. Antonio Moro (c. 1516/1519-1576)  
*Felipe II.aren erretratua*, c. 1549-1550  
 Olioa haritz-oholean. 107,5 x 83,3 cm  
 Bilboko Arte Eder Museoa  
 Inb. zenb. 92/253



© Babestutako materiala

9. Antonio Moro (c. 1516/1519-1576)  
*Savoiako Emanuele Filibertoren erretratua, San Kintingo armadura jantzita duela*, c. 1557  
 Olioa oholean. 110,4 x 94 cm  
 The Royal Collection, Hampton Court, Londres  
 Inb. zenb. RCIN 403945



printzea lehen planoan eta hiru laurdeneko irudian margotuta dago, ikusleei begiratzen die zuzen-zuzenean eta, bien bitartean, argi-fokua ezkerretik islatzen da apaindutako armadura aberatsean. Belusa gorritz jantzi-tako mahaiaren gainean dauka eskua, eta kasketa ere bertan dago. Osagai biak printzearen maiestatearen eta etorkizunean bere erresuma zabalen errege eta babesle moduan izango duen zereginaren adierazgarri dira. Karlosek buruzagi militar eta babesle moduan izango duen eginkizuna are gehiago nabarmentzen da eskuineko besoaren goiko aldean lotuta daukan begizta gorriagatik eta ezkerreko eskuaz ezpataren heldulekuari oratzean erakusten duen irmotasunagatik.

Nolanahi ere, erretratu militar nagusia –Sánchez Coellok eta Jorge de la Rúak printzeei egindako erretratu hasierako inspirazioa izan zen– Felipe II.arena zen. Gaur egun, El Escorial-eko Austriatarren Jauregian dago, eta 1560. urtean amaitu zen, Antonio Morok Espainiako gortera bigarren bidaia egin zuenean [6. ir.]<sup>55</sup>. Felipe II.ak urte batzuk lehenago, 1557an, San Kintinen garatutako batailan lortutako garaipena omentzeko margotu zen erregearen irudi militar hori Austria Etxeko subiranoaren eta buruzagi militarren prototipo bihurtu zen. Hain zuzen ere, Tizianok armatutako printzeari 1550-1551n egin zion erretratu baina ospetsuagoa izan zen [7. ir.]. Morok azaleko elementu guztiak murriztu zituen, eta ostean Pantojak bere erretratuetan erabili zuen sinplifikazioaren alde egin zuen. Felipe II.a atzealde neutroan agertzen da ebakita. Kokagune daukan bataila-eremua, ordea, berdea da, eta, espazioari egindako emakida bakarra denez, ikusleen gainetik inposatzen da. Oso osagarri gutxi nabarmentzen dira, baina erabakigarriak dira –Ardi-larruaren ordenako zaindaria den San Andresen ikoroskidun armadura, begizta gorria eta aginte-makila–, agintaritzadun zein boteredun errege kementsua dela eta bere aita zen Karlos V.a enperadorearen oinordeko duina dela adierazten digutelako. Ideia hori azpimarratzeko, berak egindako beste erretratu batzuetan ez bezala, ez da bekokian, bekainean daukan orbain txikia ezkututzen, eta gerrako zauriaren oroigarri moduan uzten da<sup>56</sup>. Pantojak zehatz-mehatz kopia zuen xehetasun hori. Antonio Moro abstrakzioaren eta espazioaren manipulazioaren maisua izan zen, bere jaunaren, Felipe II.aren, irudia errege eredugarri, lider militar trebe eta ondo hazitako printze errenazentista moduan margotzeko orduan. Izan ere, horren adierazgarri da 1549aren inguruan Felipe II.ari egin zion lehenengo erretratu. Margolan hori ere Bilboko Arte Eder Museoan dago [8. ir.]<sup>57</sup>. Era berean, gogoan eduki behar dugu Morok ere Felipe Manuelek aitaren partetik zeukan aitonari, Savoia-ko Emanuele Filibertori [9. ir.], egin ziola erretratu 1557. urtearen inguruan. Bertan, San Kintineko heroi moduan agertzen zen; batailan<sup>58</sup> eraman ostean Tiroleko Fernando II.a artxidukeari Insbruckera bidalitako armadura zeukan soinean, Ardi-larruzko lepoko handia eta banda gorria zeuzkan jarrita eta aginte-makila zeraman eskuan.

Morok El Escorialeko erretratu erabilitako irtenbideak Pantojak berak erabili zituen Felipe Manuelen erretratu egiteko orduan. Hain zuzen ere, San Kintineko jardunaldian bezala jantzitako Felipe II.aren erretratu bidali zen Valladolidetik El Pardora, Pantojak jauregi horretako erretratu galeria berrirako bertsioa kopia-tu zezan<sup>59</sup>. Dena dela, berrikuntzak egin zituen, erregearen silueta errezel gorri biziaren gainean ebakitzen

55 2004. urtean, Ondare Nazionaleko Zaharberrikuntza Sailak garatutako jarduketaren ondoren, birpinturak atzealde beltza estaltzeko lausodura izango balitz bezala zatika estalitako sinadura originala agertu zen («Antonio Moro Pingebat 1560»); bai eta itxurazko molduradun egurrezko markoa ere. Hori dela eta, Sánchez Coellok 1566an Vienan egindako kopiaren antzekoa da (KHM, inb. zenb. 3995). 1575. urtean, Felipe II.ak margolan hori El Escorialeko monasterioari eman zion dohaintzan, baina erreplika eta kopia asko egon ziren. Era berean, honako honen saiakera berria ikusi: Schroth 2004.

56 Morok Vespasiano Gonzagak 1556an Ostian gertatutako setiotik ezpain gainean zeukan *nobilis cicatrix* nabarmendu zuen, 1559an pertsonaia proespainiar horri Bruselan egin zion erretratu. Era berean, armadura erdiz azaltzen da. Gaur egun, Comoko Museo Civicoan dago. Ikus Mario Marubbi. «Ritratto di Vespasiano Gonzaga Colonna», in Napoli 2006, 196.-197. or.

57 Ikus Woodall 1993.

58 Erretratu hau Hampton Courten dago, eta, orain dela gutxi, honako honexek argitaratu du: Kusche 2003, 434. or., 391. ir. Gaur egun Vienan dagoen armadurarako (Kunsthistorisches Museum, inb. zenb. A. 697), Christian Beaufort-Spontin. «Arnés de Manuel Filiberto de Saboya», in Valladolid 1998, 377. or., 189. zenb.

59 Lapuerta 2000, 34.-35. or. Pantojak El Pardorako egiten duen margolan-zerrendan, Mororen erretratuaren kopia dela onartzen da, atzean errezel gorri bizi eta kolore beraz jantzitako idazmahaia agertu arren. Bigarren xehetasun hori erretratu berreginetik kendu zen katalogo honetan: Pinturas de cuatro siglos 1997, 64.-69. or. Era berean, Kusche 2007, 163. or.

delako eta, neurri handi batean, aztergai dugun erretratuaren antza duelako. Izan ere, Felipe II.aren alboan dagoen idazmahaia jantzen duen oihala ere kolore berekoa da. Beste bertsio bat ere lagungarria izan daiteke Pantojak Felipe II.ari El Pardorako egin zion erretratu nolakoa zen imajinatzeko. Pérez Simón bilduman mahairik gabe dagoen aleaz ari gara, alegia [10. ir.].

Pantojak 1592. urtearen inguruan, 14 urte zituela, etorkizunean Felipe III.a erregea [11. ir.] izango zen Espainiako printzeari egin zizkion erretratu batean, Antonio Morok erabilitako kontzeptuak indartu zituen, baina beste era batera berrinterpretatu zituen<sup>60</sup>. Gorputz osoko printzea espazioaren atzealdean kokatuta dago, eta aginte-makilari heltzen dio. Aldi berean, Tizianok 1550-1551n Felipe printzeari (II.ari) egin zion erretratuan [7. ir.] edo Van der Straetenek Karlos semeari egin zion erretratuan [5. ir.] baino arreta handiagoa eskaintzen zaio mahai gainean dagoen kasketari. Etorkizuneko Felipe III.a erregeari printze eta oinordeko moduan egin zioten erretratu horrek antzekotasun handiak dauzka gaur egun Vienan dagoen eta urte horren inguruan egindako erretratuarekin [12. ir.]. Osagarri guztiak –kasketa, mahaia, armadura, ezpata, esku-babesa– jakituria handiz jarrita daude, aita ahuldua Espainiako errege moduan ordezkatzeko duenean buruzagi militar bikaina izango dela behin eta berriro adierazteko asmoz. Errezel gorria ere antzerki-jitez jarrita dago atzeko aldean, eszenatokia izango balitz bezala ia-ia, printzearen irudia nabarmendu ahal izateko.

Bilbon dagoen Felipe Manuelen erretraturako [1. ir.], Pantojak Austria Etxeko printzeen aurreko erretratu guztiak hartu zituen erreferentziatzat, bere irtenbideei esker aurrerapausoa eman zuen arren. Mahaia eta printzea zeharretara jarrita daude atzeko aldearekiko: Felipe Manuel naturalean tamaina handiagokoa denez, ikusleei zuzenean egin ahal die aurrez aurre. Argi-fokua frontala da eta ez dator ezkerretik, Mororen eta Sánchez Coelloren aurreko erretratu gertatzen zen bezala. Hori dela eta, erretratutakoa argitsuagoa eta ederragoa da. Printzearen eskuineko eskua segurtasunez jarrita dago mahai-ertzean, eta posizio hori tapetearen gainean dagoen esku-babes hutsak errepikatu eta nabarmendu egiten du. Beste eskuan, ostera, aginte-makila darama. Mahaiko belus gorriko tapeteko urre-bortxek «Savoiaiko korapiloa» eratzten dute. Korapilo hori, hain zuzen ere, hainbat eta hainbat aldiz agertzen da etxe honetako kideen erretratuetan, armaduretan eta kate-mailetan grabatuta edo jantzieta brodatuta. Savoiaarren sinbolo heraldikoa oso ezaguna zen garaikideentzat, eta pertsona nor den zehazten laguntzen digu. Sinbolo hori, gainera, Caraccak umeari bost urte zituela egin zion erretratuan agertzen zen. Ostean, Espainiako gortera bidali zuten, eta, gaur egun, Pradoko Museoan dago [4. ir.]. Printzeak *Annunziata*ko ordenako begizta darama lepotik zintzilik, eta *FERT*<sup>61</sup> ezizena dauka, Caraccak bere aita zen Karlo Emanuele I.ari egin zion erretratuan ikusi zen bezala [13. ir.]<sup>62</sup>. Armatutako irudia daukan azken erretratu hori eredutzat hartu ahal izan zuen Pantojak, Felipe Manuelen aitaren eta aitonaren erretratuak [14. ir.] Madriliko gortera bidalitako kopiei esker ezagutu zirelako<sup>63</sup>, aurre-rago ikusiko dugun bezala.

Kasu honetan, errezel gorria nabarmendu da. Orain dela gutxi, kanpaina militarretan erabilitako kanpadenda dela interpretatu dute, eta antzerki-atzealde dramatikoak sortzen du printzearen inguruan<sup>64</sup>. Ikusizko garrantziaren aldetik, errezelaren parekoa da Felipe Manuelek soinean daraman armadura damaskinatua. Izan ere,

60 Erretratu hau, Argentinako Carlos Ahumada Bilduman dago gaur egun, baina New Yorkeko Wildenstein & Co konpainiarena izan zen. 1941. urtean, Toledon (Ohio) jarri zuten ikusgai. Ikus Toledo 1941, 58.-59. or., 34. ir.; Pérez de Tudela (prentsan)\_b; Kusche 2007, 399.-400. or.

61 *Fortitudo Eius Rhodom Tenuit, Fides Est Regni Tutela* edo *Foedere Et Religione Tenemur* dibisen inizialak izango lirarteke. Beste autore batzuentzat, antzinako frantseseko *fertè*-ren, sendotasunaren laburdura da.

62 G. Sluiter. «Carlo Emanuele I di Savoia», in Turin 2005, 102.-103. or., 16. zenb. Annunziatako ordena Espainiako errege-etxeko erretratuaren urrezko ardi-larruzko nonahiko lepokoaren baliokide savoiarra izango litzateke. Era berean, printzearen aitona, Emanuel Filibertok, ere badarama gaur egun El Escorialen dagoen erretratuan, inb. zenb. 10014157. Orain dela gutxi, Giorgio Solerirekin lotuta dagoela esan dute. El Pardoko erretratuaren galerian, 1564. urtean bazegoen Tizianok egin zion erretratu bat, baina gaur egun galduta dago: Kusche 1991a; Kusche 1991b, 270. eta 293. or., 24. ir. Badirudi Hungariako Mariaren bildumakoa zela. Erretratu 1548an egin zen Augsburgon.

63 Era berean, gogoan eduki behar da Caracca bera ere Sánchez Coellok eta Antonio Morok margotutako erretratu militarren eraginpean zegoela, baina, batez ere, San Kintineko jardunaldiko armadura zeraman Felipe II.aren erretratuaren eragina antzematen da, El Escorialen miretsi ahal izan zuen eta.

64 Alexandra Millón Maté. «Príncipe de Saboya. Filippo Emanuele», in Madrid 2005, 371. or.



10. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Felipe II.aren erretratua*, c. 1604-1608  
 Olioa mihisean. 110,5 x 89 cm  
 Pérez Simón Bilduma, México



11. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Felipe printzearen erretratua, armatuta*, c. 1592  
 Olioa mihisean. 170,2 x 95,3 cm  
 New Yorkeko Wildenstein & Company, Inc.en  
 eskaintzaz jasotako argazkia  
 Carlos Ahumada Bilduma, Argentina



12. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Felipe printzearen erretratua, armatuta*, c. 1591-1592  
 Olioa mihisean. 150 x 73 cm  
 Kunsthistorisches Museum, Viena  
 Inb. zenb. GG 2581

erretratuko esangura ikonografiko handieneko elementua da. Aberastasunez apaindutako eta urreztatutako armadura erdi milandarra zehaztasun eta xehetasun handiz margotu da, baina, batez ere, argia eta errezilla petoko altzairu urdinxkan islatzen diren moduan. Pieza hori printzearen erretratuan erabilitako atentzio eta xehetasun berberetzatratatu da.

Armategia Espainiako eta Savoiaiko<sup>65</sup> gorteez XVI. mendean zeuzkaten bildumetako osagai neurgikoa zen: Felipe Manuelen aitak, Karlo Emanuele I.ak, Milango Pompeo della Cesa bezalako armagin italiar nagusien tailerretik irtendako pieza aukeratuak eskuratu zituen, euretako asko Torinoko Armeria Realen daude oraindik eta euretako batzuk gurata hautatu zituen, Caraccak egin zizkion erretratu ofizialetan erakusteko<sup>66</sup>. Aparatuko armaduren bildumagintza jabearen aberastasunaren, estatusaren eta arlo artistikoan zeukan eza-gutzaren adierazgarri zen erabat. Era berean, prestakuntzan zehar, Austria Etxeko printze gazteek armategia<sup>67</sup> bisitatu behar zuten derrigorrean.

65 Gogoan izan behar dugu Savoiaiko printzeek Espainiako koroari laguntza militarra eman ziotela Frantziaren aurkako kanpainetan. Nahiz eta Felipe II.aren partaidetza oso eskasa izan, printzearen aitonak San Kintineko batailan eduki zuen zeregin nagusia da horren adierazgarri. Bere oinordekoak protagonismo militar horri eutsi zion Katalina Mikaelarekin ezkondu eta egon zen urteetan.

66 Cf. Schroth 2004, 112.-126. or. Berak adierazitakoaren arabera, honako hauen guztien sinboloa zen armadura: gerra, agintaritzza, adorea, garaipena, boterea, maila, estatusa, eskubide dinastikoa eta aberastasuna.

67 Esate baterako, 1571. urtean, Moja Oinutsen komentuan meza entzun eta Alkazarrean bazkaldu ondoren, Austriako Anak, Alberto eta Venceslao nebek eta infantatxoek Errege Armategia bisitatu zuten, Ladrado markesak Felipe II.ari azaldu zion bezala (Madril, 1571ko martxoaren 31n. British Library, Additional Ms. 28354, 166. f.). Era berean, Felipe printzeak (III.ak) berak ere egin zuen aita hil baino lehentxeago. Eskerrik asko Bernardo Garcíari, azken informazio hori emateagatik.



13. Giovanni Caracca (Jan Kraek) (aktibo 1568 eta 1607 bitartean)  
*Savoiako Karlo Emanuele I.aren erretratu, c. 1590-1591*  
Olioa mihisean. 194 x 108 cm  
Museo Civico Casa Cavassa, Saluzzo, Italia  
Inb. zenb. OA 21

1603. urtean hiru seme nagusiak Espainiara iritsi zirenean, Karlo Emanuele I.ak opari aparta bidali zion Felipe III.a koinatuari. Sorta horretan erregearentzako goarnizio trukagarriak zituen armadura milandarra<sup>68</sup> eta zaldia zeuden, bai eta beste arma batzuk ere. Euretako batzuk, gainera, su-armak ziren. Izan ere, Espainiako erregeari modu ofizialean aurkeztu zizkieten Valladoliden urte bereko irailaren 3an, bere semeen harrera ona izan zedin. Multzo horren zati bat Madrileko Errege Armategian dago oraindik, eta, 1585ekoa den arren, balio artistiko handia zeukan eta aberastasunez apainduta zegoen. Hori dela eta, Felipe III.aren arma-bilduma osatzeko opari duina zen. Horrez gain, bere aitarenak eta aitonarenak izandako balio handiko beste pieza dinastiko batzuk ere bazeuden bilduma horretan<sup>69</sup>.

Karlo Emanuelekin itxaropenak zituen, Felipe III.ak oinordekorik ez bazuen (ez zen 1605. urtera arte jaio), bere semeek Espainiako koroako oinordetzarako eskubidea izan zezaketelako. Opari diplomatiko arranditsu horren helburua, hain zuzen ere, armadurak oso gustuko zituen koinatua norabide horretarantz eramatea zela esan liteke. Bataila-eremuan erabiltzeko sortu ez ziren parada-piezak Madrileko Errege Armategiko nagusietakoak izan ziren.

Pantojak jeneralen agente-makila bereizgarria eskuan zeukan Felipe Manueli Espainiako tronuko oinordeko moduan egin zion erretratuak helburu argia zeukan, etorkizunean armadak agintez zuzenduko zituen gobernari indartsua izango zela adieraztea, alegia. Guzti-guztiek bazekiten gazte hura ikasketetan baino askoz trebeagoa zela atari zabaleko zaldi-ariketetan. Hori dela eta, alderdi hori sustatu nahi izan zuten. Nolanahi ere, ulertu behar da gaztearen bizitzako une horretan armadura apaindu bezain aberats hori printze-izaerari dagokion parada-goarnizio zeremoniala dela eta, ez, benetan erabiltzekoa, hau da, gorteko zenbait entretenimendutan eta benetako gerra prestatzeko lehiaketetan baino ezin zen erabili<sup>70</sup>. Pie-

68 Seguruena, Karlo Emanueleren eta Felipe II.aren alaba zen Katalina Mikaelaren ezkontza omentzeko enkargatu zen armadura hori.

69 Geneve 2003, 489.-491. or., 87. zenb. Kasuan kasuko fitxak ere hementxe daude: Turin 2007a.

70 Cf. Schroth 2004, 126. or. Bere argudioen arabera, garai hartan Espainiako gorteko armadurak bilakatu egin ziren, eta urregintzaz egindako gizonetako bigarren gorputz ikusgarria sortu zen.



14. Ustez, Giorgio Soleri (?-1587)  
*Savoiaiko Emanuele Filibertoren erretratua*, c. 1570-1575  
 Olioa mihisean. 114 x 90 cm  
 Ondare Nazionale, Austriarren Jauregia, El Escorial, Madril  
 Inb. zenb. 10014147

zaren apaingarri batzuk, adibidez zabaldutako hegoak dituzten harpiak, garaikur militarrek edo armatutako irudiak dituzten medailoiak, eta damaskinatutako apaindurako [15. ir.] beste xehetasun batzuk kontuan hartuta, are hurbilago zegoen Pantojak artean printzea zen Felipe III.ari egindako erretratuetan [12. eta 16. ir.] agertzen ziren armaduretatik printzeak sorterrian jantzen zituen korapilo savoiardun armaduretatik<sup>71</sup> edota baita ere enblema hieraldikoak eta koro batek elkartutako makilak dituen pritzearen armadura milanderretik –Castelloko maisuak egina eta Madrilgo Errege Armategian dagoena<sup>72</sup>– baino. Dena dela, armadura italiar hori [17. ir.]<sup>73</sup> aukeratzea ez zen ausazkoa izan. Batetik, 1591tik 1594ra etorkizuneko erregea armadura hori jantzita erretratatu zueneko apunteak izango omen zituenek, Pantojarentzat errazagoa izango zen printze egonezinarekin paratzeko saio luzerik ez egitea, Valladolideko gorteko bizimoduan bete-betean sartuta zegoela kontuan hartuta. Bestetik, Espainiako subiranoarekin zeuzkan odol-loturak azpimarratzen zituen, eta, gainera, inoiz ez zen erretratu honetan erabiliko erregeak horretarako baimenik eman ez balu. Armadura erdia sare-begizko kotaren gainean dagoela eta hiru laurdeneko erretratua baino ez dela alde batera utzita, antzeman daiteke gazteak ez darabiltzala lehenengo erretratuetako jantzi italiarrak eta Espainiako azken modaren arabera jantzen dela. Beraz, agerikoa zen osabaren gortean integratu zela. Ia-ia plater-erakoa den letxugatxoa dauka lepoaren inguruan, eta sastatutako zein brodatutako galtza esekiak daramatza. Felipe Manuelen erretratuan, Felipe III.aren gortearen handitasun berria islatzen da, eta Felipe II.aren erregealdian sustatutako eta Antonio Morok zein Alonso Sánchez Coellok<sup>74</sup> finkatutako erretratu-estilo zorrotzari emandako erantzun piktorikoa da. Zorritzarrez, Felipe Manuelek ezin izan zituen beragan jarritako itxaropenak bete, 1605ean, etorkizuneko Felipe IV.a jaio zen urtean, ezustean hil zelako.

71 Esate baterako, Racconigi jauregikoa (inb. zenb. 1951; 5527. zenb.) edo, Caraccaren erakusketa monografikoko katalogoan, anaia guztiekin batera egin ziotena (Turin 2005, 38. or., 21. ir.). Era berean, Milaneko Pompeo della Cesari hiru printzeentzako armadura berriak enkargatu zitzaizkion, Espainiarantz irten baino lehentxeago. 1603ko uztailan, Bartzelonan zeudenean, egin gabe eta ordaindu gabe zeuden artean, hemen adierazi bezala: Bava 1995, 279. or.

72 Turin 2007a, II. libk., 43. or., 2.30. zenb (inb. zenb. A. 360/368).

73 Milaneko armadura honek antzekotasun handia dauka Pompeo della Cesari egiten zituenean, eta baliteke Terranovako dukeak Felipe printzeari (III.ari) bidali izana. Vienako erretratuan erakusten duen armadura oraindik Madrilgo Errege Akademiaren dagoen alearekin identifikatzeko (B-6, multzoaren inb. zenb. 19000311), ikus Terjanian 2010. Eskerrik asko autoreari eta Álvaro Soler del Campori, pieza horiei buruzko iruzkin interesgarriak egiteagatik. Vienako Kunsthistorisches Museumen, Gemäldegalerien (inb. zenb. 4286), 1594. urtean Pantojak Felipe printzeari egin zion beste erretratu bat dago, eta bertako armadura ere antzekoa da.

74 Cf. Schroth 2004, 130. or.





15. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Savoiaiko Felipe Manuel printzearen erretratua*, c. 1604  
 Bilboko Arte Eder Museoa  
 Xehetasuna



16. Juan Pantoja de la Cruz (c. 1553-1608)  
*Felipe printzearen erretratua, armatuta*, 1594  
 Olioa mihisean. 185 x 94 cm  
 Kunsthistorisches Museum, Viena  
 Inb. zenb. GG 4286



17. Anonimo italiarra  
*Felipe III.a printzearen armadura*, XVI mendearen amaiera  
 Altzairua akuafortean grabatua eta urreztatua. 36,5 x 36 cm (Bular-babesa)  
 Ondare Nazionalea, Errege Armategia, Madril  
 Inb. zenb. 10036969



## Printzeen bizimodua Espainiako gortean

Ez dago artikulua hau amaitzerik, Savoiako printzeak Espainiako gortean nola bizi ziren gainera azaltzen ez badugu. Felipe Manuelen aitona zen Savoiako Emanuele Filibertorenganaino (1528-80) [14. ir.] jo behar dugu, Karlos V.aren gortea eta, ostean, Felipe II.aren gortea irmotasunez hurbildu zela egiaztatzen eta Espainiak Frantziari begira zehaztutako politikan funtsezkoa zela baieztatzen. Karlo Emanuele semeak Espainiaren leialtasunari eutsi zion, eta, hori zigilatzen, Felipe II.aren bigarren alaba zen Katalina Mikaelarekin ezkondu zen 1585. urtean. 1579. urtean, duke zaharrak Giorgio Soleri<sup>75</sup> erretratugilea bidali zuen Espainiara, eta 1580ko otsailera arte egon zen bertan. Orduan, Savoiara itzuli zen, eta mihisean egindako hemeretzi erretratu eraman zituen berarekin, amaituta zein amaitu gabe. Harrezkero, bi gorteek erretratuak trukatu zituzten<sup>76</sup>, eta gehienek Katalina Mikaelaren ezkontza zuten helburu. 1591. urtean, ikusi dugunez, Caracca dukearekin joan zen Madrilerara, eta, urte horretan bertan, erregearen iloben erretratu batzuk iritsi ziren. Mario Humolinok dukesari<sup>77</sup> azaldu zion bezala, arrakasta handiz hartu zituzten. Euretako bat Pradoko Museoan dago gaur egun [4. ir.]. Savoiako dukeak Felipe II.aren lau emazteen erretratuak eta Karlos V.aren beste bat eraman zituen Torinora itzuli zenean. Bien bitartean, Caracca bertan geratu zen, erregearen eta seme-alaben naturaleko erretratua El Escorialen egiten, erregearen gozamenerako. Gaixotasun larriari aurre egin ondoren, 1592. urtean Italiara itzuli zen Genoan zehar, eta, bere ekipajearekin, dukesaren familiaren eta Isabel Klara Eugenia ahizparekin geratutako damen hogeita lau erretratu eraman zituen. 1591. urtetik, seguruenik, Isabelek erretratuen galeria txikia eduki zuen Madrileko Alkazarreko oratorioaren alboan, eta erretratuak errezel berdeez estaltzen ziren. Bertan, loben eta ahizparen erretratuak zeuden leku nabarietan jarrita<sup>78</sup>. Harik eta hil zen arte, Katalina Mikaelak ahizpari seme-alaben aurrerapenen berri ematen zion aldian-aldian, eta haien erretratuak bidaltzen zizkion, apurka-apurka ezagutu zitzaizkien. Serie horrek ez dauka inolako zerikusirik Cuelbisek 1599. urtean deskribatutakoarekin, publikoagoa eta ofizialagoa baitzen. Beraz, Felipe III.ak ondotxo jakin behar zuen bere lobak nolakoak ziren 1603. urtean Valladolidera heldu zirenean. Erretratuak ez ezik, bi gorteek opariak ere trukatu zituzten etengabe: objektu exotikoak, soinekoak, bitxiak eta irudi erlijiosoak; esate baterako, Hil-oihal Santua, Mirafloresko santutegiaren marrazkiak edo Mondoviko Madonna. Felipe III.ak, hain zuzen ere, debozio handia zion 1597. urtean ahizpak aitari irudi bat bidali zionetik<sup>79</sup>.

Etorriko zirela erabaki zutenean, Giacomo Antonio della Torrek Bartzelonan egin zien harrera. Izan ere, Giacomok hiri horretaraino eraman zituen printzeen zerbitzurako beharrezkoak ziren gauza guztiak<sup>80</sup>. 1603ko ekainean Espainiara heldu zirenetik, biderei ekin zioten, Lermako dukeak Burgosetik hurbil zeukan La Ventosilla<sup>81</sup> landa-finkaren inguruan erregearekin elkartzeko asmoz. Sarritan, erregearekin joan ziren bertara, ehizan egiteko asmoz. Valladoliden, Jauregi Zaharrean edo Benaventeko dukearen jauregian bizi izan ziren. Errege-erreginen bizilekua zen jauregi berriarekin lotuta zegoen erregeak lobak bisitatzeko sarritan erabiltzen zuten igarobidearen bitartez. Igarobide hori egon zen bitartean, gainera, «Savoiako printzeena»<sup>82</sup>

75 Pérez de Tudela 2001, 487. or.; Baudi di Vesme 1963-1982, III. libk., 994. or. 1571. urtean, garai hartan Piemonteko printzea zen Karlo Emanueleren erretratuak zeuden jada, Sánchez Coellok Argote de Molinarentzat egin zuena bezalakoa, adibidez. Zarco del Valle 1870, 245.-249. or.

76 Esate baterako, 1583. urtean dukeari bidalitako Felipe II.aren erretratua (ibid., 487. or.) edo 1584an Torinora heldutako infantarena (Bouza 1998, 100. or.).

77 1591ko maiatzaren 12<sup>a</sup>. Baudi di Vesme 1963-1982, I. libk., 263. or. Margolariak Espainiako gortean egindako egonaldia buruzko informazio gehiago, 264. orrialdean. Dukea Italiara itzultzeko iragaitza-zedularako ere, ikus Archivo Histórico Nacional (AHN), Consejos, 2336. liburua, XCVII.

78 Gaiaren azterketa sakonagoa: Pérez de Tudela 2010.

79 Horrelaxe egiztatzen du Alonso del Arcok El Pardoko kaputxinoen komentuan zeukan margolanaren inskripzioak, Andre Mariaren deitura kendu eta Kontsolazioarena jarri zutelako. Ondare Nazionala, inb. zenb. 00730011. Felipe II.aren *Madonna di Mondovì* (1595) El Escorialeko sakristian dago gaur egun (inb. zenb. 10034631).

80 AHN, Consejos, 2303. liburua, 124. or. Hirian jasotako harrerarako, ikus Cabrera de Córdoba 1857, 182. or.

81 Cabrera de Córdoba 1857, 187. or.

82 Bartolomé Joly in García Mercadal 1999-, II. libk., 727. or. Savoiako printzeen egonaldirako eta Valladolideko Benavente konde-kondesen jauregian egindako kontseilu-erretarako, ikus Veiga 1989, 64. or. Eskerrik asko Mercedes Simali, arlo honetan eman digun laguntzagatik.



18. Ustez, Giovanni Caracca  
(Jan Kraek) (aktibo 1568 eta 1607 bitartean)  
*Vittorio Amedeoren erretratua,*  
*zortzi urte zituenean, 1595*  
Olioa mihisean. 118,1 x 92,7 cm  
Collezione Marco Voena, Italia

zela zioten. Printzeek osabari eskatu zioten baimena, Torinon garatu ohi zituzten ariketak egin ahal izateko. Horra hor zaldiketa<sup>83</sup>, pilota-jokoa, armak erabiltzeko trebakuntza, lantza-lasterketa, justak... Jauregiaren atzeko aldean, barrera iragankor moduan erabiltzeko oihala jarri zuten, diziplina horietan jarduteko aukera izan zezaten. Lehenengo urtean, erregearekin parte hartu zuten ekitaldi nagusi guztietan, eta, ia-ia beti, Felipe Manuel joaten zen Felipe III.aren alboan. Azaroan, errege-erreginekin joan ziren San Lorenzo de El Escorialera, eta zenbait egun gehiago eman zituzten han, bertako altxorak miretsi ahal izateko. Era berean, El Pardoko jauregia eta Madril ere bisitatu zituzten, eta San Jeronimoko<sup>84</sup> monasterioan hartu zuten ostatu. Bertatik, Valentziara<sup>85</sup>, Cuencara eta Guadalajarara joan ziren erregearekin, eta, hurrengo urtearen hasieran, Madrilera itzuli ziren berriro. 1604. urteko lehen hileetan, gortea El Pardotik El Escorialera lekualdatu zenean sortu zen erretratuen galeria suntsitu zuen sute itzela. Horren ondorioz, Felipe III.ak loba nagusiaren erretratua sartu nahi izan zuen galeria berriaren barruan, eta Pantoja de la Cruz eskatu zion egiteko. 1604ko martxoan, Valladolidera itzuli ziren, eta printzeek ekitaldi garrantzitsu guztietan parte hartu zuten; esate baterako, Riberako jauregian Tunisiako tapizak zabaldua egindako jaietan edo Gorpuzti-eguneko prozesioan. Hirugarren anaia Maltako San Joan ordenako priorea zenez, uztailen kapitulu bat ospatu zuten Tordesillasen. Gorteko jaiengatik eta adeitasunagatik eskerrak eman nahian, Savoia printzeek ordaindutako «estafermoa edo paquina»<sup>86</sup> jartzen zuten jauregiaren aurrean, eta erregea zein gorte osoa joaten zen bertara. Inguruabarren mailan egoteko asmoz, hilabeteak eman zituzten entseatzan, edergailuak eta asmakizunak prestatu zituzten eta lantzak *ex professo* erosi zituzten Bartzelonan. 1604ko irailaren 20an, erregea berriro joan zen lobekin El Escorialera, Madrilera, El Pardora, Aranjuezera, Segoviako basora, La Ventosillara eta Lermara. Hori dela eta, badirudi Pantojaren erretratua 1604ko martxoan Pardoko sutea gertatu ondoren Valladolidera itzuli zirenetik errege-jardunaldi berri hori

83 1603ko irailaren 6an, Medicitarren Cosimo Concini enbaxadoreak Belisario di Francesco Vintari jakinarazi zion Valladolidetik aurreko egunean Felipe III.a lobak ikusten joan zela eta haiek zaldi jauzilaria oparitu ziotela, Felipe Manuelek zaldi gainean trebezia handia erakutsi ostean. Archivio di Stato di Firenze (ASF), Mediceo di Principato, 4932, 58. or. 59. orrian, printzeen gaueko sarrera azaltzen da.

84 Cabrera de Córdoba 1857, 194.-197. or. Printzeek Valladoliden garatutako bizimoduari buruzko datu gehienak iturri honetatik ateratakoak dira.

85 1604ko urte berriko jaietan, Valentzian, erregeak ez zuen dantzan egin, baina bere lobek dotoreziaz egin zuten, Felipe Manuelek eta Filibertok, batez ere, urtarilaren 4ko jakinarazpen medicitar batean azaltzen den bezala. ASF, 5053, 205. or.

86 Pampina birakaria da. Ezkerreko eskuan, ezkutua darama; eta eskuinekoan, boladun uhala edo harez betetako zakutxoak. Korrika igarotzen ziren jokalariek lantzatxoak ezkutuan zauritzean, bira egiten zuten eta arin igarotzen ez zen jokalaria jotzen zuten bolen edo zakutxoaren bitartez.

hasi arte igarotako epealdian egin zela. 1605. urtearen hasieran, Felipe III.ak ilobekin joan nahi izan zuen Ventosillara, baina anaia nagusi biak nafarrieriak eta elgorriak jota zeudenez, bakarrik joan zen otsailaren 3an. Otsailaren 9an, anaia nagusia hil zen. Gortean, dolua ezarri zen<sup>87</sup>, eta, erregearen aginduz, otsailaren 12an, gorpua eraman zuten El Escorialera, bertan ehortzeko asmoz. Piemonteko printzearen lekua Vittoriok [18. ir.] bete zuen, eta, urte horretan bertan, etorkizuneko Felipe IV.aren aitabitxia izateko ohorea eman zioten.

Beste bi anaiak sendatu zirenean, Burgoseko Kristorengana joan ziren eskerrak ematen, eta, berehala, gorteko bizimoduan integratu ziren berriro. Euren partaidetza eduki zuen lehen ekitaldia Felipe IV.aren bataioa izan zen, eta umearen hirugarren izena Victorio izan zen, aitabitxiaren omenez. Ingalaterrarekin bakea sinatu ostean, kanaberen jokoan parte hartu zuten, eta, ekainaren 13an, Felipe III.aren babespeko lehiaketako koadrila mantendu behar zuten, jauregiaren aurrean jarritako oholtzan. Azkenean, jai hori ez zen garatu, baina erregeak gastatu zuten guztia itzuli zien. Bestela, jauregia eta San Paulo lotzen zituen eta garaiko artista garrantzitsuenek apaindu zuten egongela berria irekitzeko antolatutako maskaran eta gau-jaian parte hartu zuten. Udan, Lerma ingurura joan ziren, eta, bertan, Alcocer alprojari egin zioten txantxa, erreginaren beraren laguntzaz. Udazkenean, Felipe III.arekin joan ziren ehizan La Ventosillara. 1606. urtean, gortearren gainerakoarekin joan ziren Madrilera, eta Alkazarrean hartu zuten ostatu. 1606ko uztailaren 14an, Madril utzi eta sorterrira itzuli ziren. Erregeak legoa erdiko bidaiara egin zuen eurekin. Bazirudien irailean San Joaneko priorea, Emanuele Filiberto, anaia txikiekin itzuliko zela, baina plan horiek hoztu egin ziren, Karlo Emanuele I.a Frantziaren aldeko politika hasi zelako garatzen.

Anaiak Espainian egon ziren bitartean, bi gorteen arteko opari diplomatikoen trukea etengabea izan zen. Dena dela, Savoiako seme nagusiak erregearen alabarekin ezkondu zenean ekarritako opariena izan zen une gogoangarriena. Izan ere, opari-trukea ez zen eten harik eta emaztea 1597an hil zen arte. 1604. urtean<sup>88</sup>, printzeek arropa zeremonialak, armak eta zerbitzuko zilarra bidali zizkioten Savoiako dukeari, eta, Espainiako gortetik joan baino lehen, zaldiak, Italian oso preziatuak ziren animalia exotikoak<sup>89</sup> eta ekialdeko beste objektu batzuk<sup>90</sup> ere bai. Objektu horiek guztiak 1606an<sup>91</sup> gazteak sorterrira itzultzean eraman zuten ekipajea baino lehenago bidali zituzten. Espainian egon zirenean egin zizkioten oparion ordainetan, aita<sup>92</sup> Savoiako gortetik bidaltzen zizkien euren lurraldeko elikagaiak, armak, jantziak, kapeluetarako lumak eta objektu artistikoak –margolanak, esaterako–, euren mailaren arabera bizi zitezten, Espainiako gortean banatu zituzten eta, horren ondorioz, gortean zeukaten posizioa indartu zezaten. Printzeak Espainiako luxuzko produktuetara ohituta zeudenez, lantzean behin zaldiak bidaltzen zituzten Italiara<sup>93</sup>.

87 Horrelaxe jakinarazi zion Mantuko enbaxadoreak, Celerio Bonattik, Vincenzo I Gonzagari, Valladoliden, 1605eko otsailaren 10ean. Archivio di Stato de Mantua, 607. b., 792.-793. or.

88 Igarotzeko zedula, Valladoliden, 1604ko ekainaren 17an. AHN, Consejos, 2303. liburua. Jacome Antonio de la Torre enbaxadorearen zaintzapean, printzeek honako hauxe bidali zuten: Annunziatiko ordenako mantu brodatua, ordena bereko urrezko lepokoa (berrehun dukatekoa), beltz-urdinean zizelkatutako ezpata bere burdinak eta guzti, zilar zuriz egindako eta printzeen armak grabatutako sei eliza-argimutil altu (hirurogei markoko pisua), urre gaineko zilar-salbadun bi edergarri zizelkatu txiki (bost markoko pisua) eta berunezko ontzian gordetako bi ontza musketa (horrela ez zen usaina isurtzen), besteak beste. Beharbada, ezpata hori Felipe II.aren zaldun nagusia zen Diego de Córdoba jaunarena izan zen. Hain zuzen ere, 1598. urtean hil zen. 1604ko abuztuan, printzeek aitari bidali zioten, ahizpentzako bi baleztarekin batera. Ikus Bava 1995, 280. or., 71. oharra.

89 Savoiako Emanuel Filibertok Simón Ribeiro izeneko agentea zeukan Espainian, eta objektu exotikoak hornitzen zizkion. Aldian-aldian, Katalina Mikaelak txikitatik gustuko zituen produktu eta animalia horiek iristen ziren Torinora. Beraz, bere seme-alabek eta senarrak Espainiara joan baino lehen ezagutzen zituzten. Juan Jacome Visok zaldi horiek eta «dos micos pequeños de la India, un pellejo de zebra listado de blanco y negro y un lienço pintado de la misma zebra...» eraman zituen, La Ventosillan, 1605eko urriaren 31n. AHN, Consejos, 2304. liburua, 90. or.

90 Igarotzeko zedula, La Ventosillan, 1605eko urriaren 31n. AHN, Consejos, 2304. liburua, 91v.- 92. or. Dukearen ezohiko enbaxadorea zen Cangli markesak garraiatu zituen: «dos piedras veçares gruesas contrahechas de peso de hasta una libra de valor de quarenta ducados [...]», ambar, almizcle, «ocho vandejas de la India chicas y dos cocos [...] un rosario de calambuco con unos extremos de filigrana».

91 Igarotzeko zedula, Madrilen, 1606ko uztailaren 10ean. AHN, Consejos, 2304. liburua. Cabrera de Córdoba 1857, 284. or. Bertan, gogoratu egiten du 1606ko uztailaren 14an Madriletik Bartzelonara joatekotan zeudenean printzeak oso alai zeudela, Felipe III.ak oso bitxi aberats ugari, hamar zaldi eta euren edergailuak oparitu zizkielako. Guztira, hogeita hamar milatik gora ezkutuko oparia izan zen, gutxi gorabehera.

92 Igarotzeko zedula, Valladoliden, 1605eko otsailaren 17an, Felipe III.ak Aragoiko erregeordea zen Colonna kardinalarentzat prestatutakoa. AHN, Consejos, 2304. liburua, 42.-43. or. Horra hor gaztak, arropak, lumak, margolanak, arkabuzak, pistolak...

93 Igarotzeko zedula, Madrilen, 1608ko urriaren 8an. AHN, Consejos, 2305. liburua, 25.-26. or. Animaliak ez ezik, zetazko zingilak eta oihalak ere joan ziren.

Printze horiek Espainiako gortean utzitako aztarna hain ona izan zenez, Emanuele Filiberto zenbait urte geroago itzuli zen Espainiara, 1610. urtean<sup>94</sup>, hain zuzen ere, eta errege-familiako artista batzuek beretzat lan egin zuten<sup>95</sup>. 1613tik 1614ra, Vittorio Amedeo anaia ere egon zen berarekin, eta, 1614an Italiara itzuli zenean, erregearen lobak eduki beharreko ekipajea eraman zuen<sup>96</sup>.

---

94 Printzearen etorrerarako iragaitza-zedula, Madrilen, 1610eko urriaren 5ean. AHN, Consejos, 2403. liburua, 19.-20v. or. Savoiaara bueltan doazen zerbitzarien igarobidea, Madrilen, 1611ko ekainaren 9an, 2402. liburua, 277, or. 1611ko apirilaren 2ko antzeko beste agiri batean, 2403. liburuan, 158v-160. orrian, zehaztu egiten da anaiari eurekin sei beltz bidaltzen dizkiola. 182.-183v. orrian, Madrilen, 1611ko ekainaren 8an, printzeak bost zaldi espainiar bidaltzen dizkie anaiei. Ostatu ezin hobea eskaini zioten Altxorraren Etxean. Ikus Barbeito 1992, 71. or., 205. oharra; Cabrera de Córdoba 1857, 420. or. Liburu honetan, Savoiaiko printzeek Espainiako gortean egindako bigarren egonaldia buruzko berezitasun ugari biltzen dira.

95 Martín González 1958, 140. or. Felipe IV.ak Bassanok berari egindako margolanak heredatu zituen (Madrid 2001, 26. or.). 1624. urtean, Van Dyckek egin zion erretratua, Siziliako erregeordea zenean (Londresko Dulwich Gallery). Armadura Madrileko Errege Armategian dago oraindik.

96 AGS, Dirección General del Tesoro, 24. inb. zenb., 1345. paper-sorta, 7. Erregeak zenbait bitxi oparitu zizkion joatean (Cabrera de Córdoba 1857, 546. or.).

## BIBLIOGRAFIA

### Angulo/Pérez Sánchez 1969

Diego Angulo Iñiguez ; Alfonso E. Pérez Sánchez. *Historia de la pintura española : escuela madrileña del primer tercio del siglo XVII*. Madrid : Instituto Diego Velázquez, 1969.

### Barbeito 1992

José Manuel Barbeito. *El Alcázar de Madrid*. Madrid : Servicio de Publicaciones del COAM, 1992.

### Baudi di Vesme 1963-1982

Alessandro Baudi di Vesme. *Schede Vesme : l'arte in Piemonte dal XVI al XVIII secolo*. Torino : Società piemontese di archeologia e belle arti, 1963-1982.

### Bava 1995

Anna Maria Bava. «Le collezioni di oggetti preziosi», Giovanni Romano (arg.). *Le collezioni di Carlo Emanuele I di Savoia*. Torino : Fondazione CRT, Cassa di risparmio di Torino : Banca CRT, Cassa di risparmio di Torino, 1995, 265.-288. or.

### Bava 1998

—. «Arti figurative e collezionismo alle corti di Emanuele Filiberto e di Carlo Emanuele I», Giuseppe Ricuperati (a cura di). *Storia di Torino. 3 : dalla dominazione francese alla ricomposizione dello Stato (1536-1630)*. Torino : Giulio Einaudi editore, 1998, 312.-339. or.

### Bava 2005

—. «Carlo Emanuel di Savoia. Caterina Micaela di Savoia», «Il nostro pittore fiamengo» : Giovanni Caracca alla Corte dei Savoia (1568-1607). [Erak. kat., Turin, Galleria Sabauda]. Paola Astrua ; Anna Maria Bava ; Carla Enrica Spantigati (a cura di). Torino, Italy : Umberto Allemandi & C., 2005, 98.-101. or.

### Bilboko Arte Ederren Museoa... 2012

*Bilboko Arte Ederren Museoa : gida*. Bilbao : Bilboko Arte Ederren Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2012.

### Bouza 1998

Fernando Bouza (arg.). *Cartas de Felipe II a sus hijas*. Tres Cantos (Madrid) : Akal, 1998.

### Budapest 1996

*Spanyol mestermuvek a Bilbaói Szépmvészeti Múzeumból*. [Erak. kat., Budapest, Szépmvészeti Múzeum]. Bilbao : Banco Bilbao Vizcaya ; Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1996.

### Burke/Cherry 1997

Marcus B. Burke ; Peter Cherry. *Collections of paintings in Madrid, 1601-1755*. Los Angeles : Provenance Index of the Getty Information Institute, 1997.

### Cabrera de Córdoba 1857

Luis Cabrera de Córdoba. *Relaciones de las cosas sucedidas en la Corte de España, desde 1599 hasta 1614*. [S.l.] : [s.n.], 1857 (Madrid : Imprenta de J. Martín Alegría).

### Cáceres 2000

*El linaje del Emperador*. [Erak. kat., Cáceres, Iglesia de la Preciosa Sangre, Centro de Exposiciones San Jorge]. Madrid : Sociedad Estatal para la Conmemoración de los Centenarios de Felipe II y Carlos V, 2000.

### Calzona 2005

Luzia Calzona. «Filippo Emanuele di Savoia», Paola Astrua ; Anna Maria Bava ; Carla Enrica Spantigati (a cura di). «Il nostro pittore fiamengo» : Giovanni Caracca alla Corte dei Savoia (1568-1607). [Erak. kat., Turin, Galleria Sabauda]. Torino, Italy : Umberto Allemandi & C., 2005.

### Catalogue des tableaux anciens... 1913

*Catalogue des tableaux anciens des écoles anglaises, flamande, française, hollandaise, italienne des XV, XVI, XVII, XVIII, et XIX siècles : pastels et miniatures composant la collection de Eugène Fischhof*. [Vente, 14 juin 1913]. Paris : Galerie Georges Petit, 1913.

### Checa 1994

Fernando Checa. «Arquitectura y decoración en el Alcázar de Felipe II», *El Real Alcázar de Madrid : dos siglos de arquitectura y coleccionismo en la corte de los reyes de España*. [Erak. kat., Madrid, Palacio Real, Museo Nacional del Prado, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, Calcografía Nacional y Fundación Carlos de Amberes]. Madrid : Comunidad de Madrid : Nerea, 1994, 142.-149. or.

**Fernández Bayton 1981**

Gloria Fernández Bayton (arg.). *Inventarios reales II : testamentaria del rey Carlos II, 1701-1703*. Madrid : Museo del Prado : Patronato Nacional de Museos, 1981.

**Fernández-Miranda 1988**

Fernando Fernández-Miranda y Lozana (trans.). *Inventarios Reales : Carlos III 1789-1790*, I. libk. Madrid : Patrimonio Nacional, 1988.

**García Mercadal 1999-**

García Mercadal (arg.). *Viajes de extranjeros por España y Portugal desde los tiempos más remotos hasta comienzos del siglo XX*. Valladolid : Junta de Castilla y León, Consejería de Educación y Cultura, 1999-.

**Genoa 2003**

*Bilbao a Genova : la cultura cambia le città*. [Erak. kat., Genoa, Palazzo Ducale]. Milano : Skira, 2003.

**Geneva 2003**

*Parures triomphales : le maniérisme dans l'art de l'armure italienne*. [Erak. kat., Geneva, Musée Rath]. José A. Godoy ; Silvio Leydi (arg.). Milan : 5 continents ; Genève : Musées d'art et d'histoire, Ville de Genève, Département des affaires culturelles, 2003.

**Jordan 1994**

Annemarie Jordan Gschwend. *Retrato de corte em Portugal : o legado de António Moro : 1552-1572*. Lisboa : Quetzal, 1994.

**Jordan 1998**

—. «The Image of the King : Court Portraits in the Collection of Philip II», *Philippus II Rex*. Barcelona : Lunwerg, 1998, 53.-68. or.

**Jordan 1999**

—. «Alonso Sánchez Coello y Juan de Austria : un retrato de corte redescubierto», *Archivo español de arte*, 72. libk., 286. zenb., 1999, 186.-191. or.

**Jordan 2006**

—. «Antonio Moro, Anton van Dashorst Mor», *Enciclopedia del Museo del Prado*, V. libk. Madrid : Fundación Amigos del Museo del Prado, 2006, 1589.-1592. or.

**Kusche 1964**

María Kusche Zettelmeyer. *Juan Pantoja de la Cruz*. Madrid : Castalia, 1964.

**Kusche 1991a**

—. «La antigua galería de retratos del Pardo : su reconstrucción arquitectónica y el orden de colocación de los cuadros», *Archivo Español de Arte*, 253. zenb., 1991, 1.-28. or.

**Kusche 1991b**

—. «La antigua galería de retratos de El Pardo : su reconstrucción pictórica», *Archivo Español de Arte*, 255. zenb., 1991, 262-292. or.

**Kusche 1995**

—. «Retrato de Felipe Manuel, heredero de Saboya», *Tres siglos de pintura*. [Erak. kat.]. Madrid : Caylus Anticuario, 1995, 70.-73. or.

**Kusche 1996**

—. «La juventud de Juan Pantoja de la Cruz y sus primeros retratos : retratos y miniaturas desconocidas de su madurez», *Archivo español de arte*, 69. libk., 274. zenb., 1996, 137.-156. or.

**Kusche 1999**

—. «La nueva galería del Pardo : J. Pantoja de la Cruz, B. González y F. López», *Archivo español de arte*, 72. libk., 286. zenb., 1999, 119.-132. or.

**Kusche 2003**

—. *Retratos y retratadores : Alonso Sánchez Coello y su competidores Sofonisba Anguissola, Jorge de la Rúa y Rolán Moys*. Madrid : Fundación de Apoyo a la Historia del Arte Hispánico, 2003.

**Kusche 2007**

—. *Juan Pantoja de la Cruz y sus seguidores B. González, R. de Villandrando y A. López Polanco*. Madrid : Omega Capital : Fundación Arte Hispánico, 2007.



**Lapuerta 2000**

Magdalena de Lapuerta Montoya. «La Galería de los Retratos de Felipe III en la Casa Real de El Pardo», *Reales Sitios : Revista del Patrimonio Nacional*, 143. zenb., 2000, 28.-39. or.

**Lapuerta 2002**

—. *Los pintores de la Corte de Felipe III : la Casa Real de El Pardo*. Madrid : Consejería de las Artes : Fundación Caja Madrid, 2002.

**Lisboa 1995**

*A pintura manierista em Portugal : arte no tempo de Camões*. [Erak. kat.]. Lisbon : Comissão Nacional para as Comemorações dos Descobrimentos Portugueses ; Centro Cultural de Belém, 1995.

**Madril 1998**

*Felipe II : un monarca y su época : un príncipe del Renacimiento*. [Erak. kat., Madril, Museo del Prado]. Madrid : Sociedad Estatal para la Conmemoración de los Centenarios de Felipe II y Carlos V, 1998.

**Madril 1999**

*El arte en la Corte de los Archiduques Alberto de Austria e Isabel Clara Eugenia (1598-1633) : un reino imaginado*. [Erak. kat., Madril, Salas de Exposiciones Temporales del Palacio Real]. Madrid : Sociedad Estatal para la Conmemoración de los Centenarios de Felipe II y Carlos V, 1999.

**Madril 2001**

*Los Bassano en la España del Siglo de Oro*. [Erak. kat.]. Miguel Falomir Faus (zuz.). Madrid : Museo Nacional del Prado, 2001.

**Madril 2005**

*El mundo que vivió Cervantes*. [Erak. kat., Madril, Centro Cultural de la Villa]. Madrid : Sociedad Estatal de Conmemoraciones Culturales, 2005.

**Mansau 1998**

Andrée Mansau. «L'éducation à la cour d'Espagne des trois enfants aînés de Charles-Emmanuel I», *Mémoires de l'Académie de Savoie*, 7. zenb., XI. libk., 1998, 175.-190. or.

**Mansau 2005a**

—. «Emmanuel-Philibert de Savoie, prince d'Oneglia, 1588-1624 : voyages en Espagne et navigations en Méditerranée», *Echanges et voyages en Savoie : actes du XLe congrès des sociétés savantes de Savoie, Saint-Jean-de-Maurienne, 11 et 12 septembre 2004*. Saint-Jean-de-Maurienne : Société savoisienne d'histoire et d'archéologie, 2005, 445.-452. or. (Travaux de la SHAM, t. 38/39).

**Mansau 2005b**

—. «Emmanuel Philibert de Savoie (1588-1624) et ses frères Victor-Amédée Ier de Savoie (1587- 1637) et Thomas : quelques épisodes espagnols de leurs vies», *Mémoires de l'Académie de Savoie*, 8. zenb., VI. libk., 2005, 181.-190. or.

**Martín González 1958**

J. J. Martín González. «Arte y artistas del siglo XVII en la corte», *Archivo Español de Arte*, 122. zenb., 1958, 125.-142. or.

**Martínez Leiva/Rodríguez Rebollo 2007**

Gloria Martínez Leiva ; Ángel Rodríguez Rebollo (arg.). *Qvadros [sic] y otras cosas que tienen [sic] su magestad Felipe IV en este Alcázar de Madrid: año de 1636*. Madrid : Fundación Universitaria Española, Seminario de Arte e Iconografía «Marqués de Lozoya», 2007.

**Mayer-Löwenschwerdt 1927**

Erwin Mayer-Löwenschwerdt. *Der Aufenthalt der Erzherzoge Rudolf und Ernst in Spanien 1564-1571*. Wien : Hölder-Pichler-Tempsky, 1927 (Akademie der Wissenschaften in Wien. Philosophisch-historische Klasse. Sitzungsberichte; 206 Bd., 5 Abh.).

**Mulcahy 2006**

Rosemarie Mulcahy. «Sánchez Coello, Alonso», *Enciclopedia del Museo del Prado*, VI. libk. Madrid : Fundación Amigos del Museo del Prado, 2006, 1974-1976. or.

**Museo de Bellas Artes de Bilbao... 1999**

*Museo de Bellas Artes de Bilbao : maestros antiguos y modernos*. Bilbao : Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa = Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 1999.

### **Napoli 2006**

*Tiziano e il ritratto di corte : da Raffaello ai Carraci*. [Erak. kat., Napoli, Museo di Capodimonte]. Napoli : Electa Napoli, 2006.

### **Pérez de Tudela (en prensa)\_a**

Almudena Pérez de Tudela. «Alejandro Farnesio y su relación con la corte española : creación de una imagen y presentes diplomáticos», *Alessandro Farnese e le Fiandra = Alexander Farnese and the Low Countries*. Actas del Congreso Internacional, Académie royale des Sciences, des Lettres et des Beaux-Arts de Belgique, Bruselas, 20-22 de octubre de 2005 (en prensa).

### **Pérez de Tudela (en prensa)\_b**

—. «La educación artística y la imagen del príncipe Felipe (III)», J. Martínez Millán y M. A. Visceglia (dirs.). *La corte de Felipe III y el gobierno de la monarquía católica (1598-1621)*, Actas del Congreso Internacional, Universidad Autónoma de Madrid, Ministerio de Educación y Ciencia, Fundación Mapfre Tavera. Miraflores de la Sierra, 26-28 de mayo de 2005 (en prensa).

### **Pérez de Tudela 2001**

—. «Sobre pintura y pintores en El Escorial en el siglo XVI», *El Monasterio del Escorial y la pintura : actas del Symposium, 1/5-IX-2001*. Madrid : Real Centro Universitario Escorial-María Cristina, 2001, 467.-490. or.

### **Pérez de Tudela 2010**

—. «La decoración pictórica del Alcázar de Madrid durante el reinado de Felipe II», Krista De Jonge ; Bernardo José García García ; Alicia Esteban Estríngana (arg.). *El legado de Borgoña : fiesta y ceremonia cortesana en la Europa de los Austrias (1454-1648)*. Madrid : Fundación Carlos de Amberes : Marcial Pons, 2010, 109.-141. or. (Nazioarteko VIII. Historia Mintegia, Madrilgo Carlos de Amberes Fundazioan egindakoa, 2007ko azaroaren 28tik abenduaren 1era).

### **Pinturas de cuatro siglos 1997**

*Pinturas de cuatro siglos*. Madrid : Caylus, 1997.

### **Río Barredo 2006**

María José del Río Barredo. «El viaje de los príncipes de Saboya a la corte de Felipe III (1603-1606)», Paola Bianchi ; Luisa Clotilde Gentile (a cura di). *L'affermarsi della corte sabauda : dinastie, poteri, élites in Piemonte e Savoia fra tardo medioevo e prima età moderna*. Torino : Silvio, 2006, 407.-434. or.

### **Sánchez Cantón 1947**

Francisco Javier Sánchez Cantón. «Sobre la vida y las obras de Juan Pantoja de la Cruz», *Archivo Español de Arte*, 20. zenb., 1947, 95.-120. or.

### **Sánchez Cantón 1959**

— (arg.). *Inventarios reales : bienes muebles que pertenecieron a Felipe II*. Madrid : [s.n.], 1959.

### **Schroth 1999**

Sarah Schroth. *The private picture collection of the Duke of Lerma*. [PhD thesis, New York University]. University Microfilms International, 1999.

### **Schroth 2000**

—. «Re-Presenting Philip III and his Favorite : Changes in Court Portraiture 1598-1621», *Boletín del Museo del Prado*, XVIII, 36. zenb., 2000, 39.-50. or.

### **Schroth 2004**

—. «Veneration and Beauty : messages in the image of the King in the sixteenth and seventeenth centuries», Chiyo Ishikawa (arg.). *Spain in the age of exploration, 1492-1819*. [Erak. kat., Seattle, Seattle Art Museum ; West Palm Beach (Florida), Norton Museum of Art]. Seattle : Seattle Art Museum ; Nebraska : University of Nebraska Press, 2004, 103.-135. or.

### **Serrera 1990**

Juan Miguel Serrera. «La mecánica del retrato de Corte», *Alonso Sánchez Coello y el retrato en la corte de Felipe II*. [Erak. kat., Madril, Museo del Prado]. Madrid : Museo del Prado, 1990, 37.-63. or.

### **Sluiter 2005**

G. Sluiter. «Carlo Emanuel di Savoia. Caterina Micaela di Savoia», «*Il nostro pittore fiamengo*» : *Giovanni Caracca alla Corte dei Savoia (1568-1607)*. [Erak. kat., Turin, Galleria Sabauda]. Paola Astrua ; Anna Maria Bava ; Carla Enrica Spantigati (a cura di). Torino, Italy : Umberto Allemandi & C., 2005, 102.-105. or.

**Spivakovsky 1975**

Erika Spivakovsky (arg.). *Felipe II. Epistolario familiar : cartas a su hija, la infanta doña Catalina (1585-1596)*. Madrid : Espasa-Calpe, 1975.

**Terjanian 2010**

Pierre Terjanian. «El espectáculo del rey guerrero : las armaduras reales y pintadas de Felipe III», Krista De Jonge ; Bernardo José García García ; Alicia Esteban Estríngana (arg.). *El legado de Borgoña : fiesta y ceremonia cortesana en la Europa de los Austrias (1454-1648)*. Madrid : Fundación Carlos de Amberes : Marcial Pons, 2010, 625.-636. or. (Nazioarteko VIII. Historia Mintegia, Madrilgo Carlos de Amberes Fundazioan egindakoa, 2007ko azaroaren 28tik abenduaren 1era).

**Toledo 1941**

*Spanish painting*. [Erak. kat.]. José Gudiol (arg.). Toledo, Ohio : The Toledo Museum of Art, 1941.

**Turin 2005**

«*Il nostro pittore fiamengo*» : *Giovanni Caracca alla Corte dei Savoia (1568-1607)*. [Erak. kat., Turin, Galleria Sabauda]. Paola Astrua ; Anna Maria Bava ; Carla Enrica Spantigati (a cura di). Torino, Italy : Umberto Allemandi & C., 2005.

**Turin 2007a**

*La Reggia di Venaria e i Savoia : arte, magnificenza e storia di una corte europea*. [Erak. kat., Turin, Reggia di Venaria Reale]. Enrico Castelnuovo (arg.). Torino [etc.] : Umberto Allemandi & C., 2007.

**Turin 2007b**

*Ritratti sabaudi e vedute torinesi : da Giovanni Caracca a Carlo Bossoli*. [Erak. kat., Turin, Galleria sabauda]. Marco Voena [a cura di]. London : Robilant + Voena, 2007.

**Valladolid 1998**

*Felipe II : un monarca y su época : las tierras y los hombres del rey*. [Erak. kat., Valladolid, Museo Nacional de Escultura]. Madrid : Sociedad Estatal para la Conmemoración de los Centenarios de Felipe II y Carlos V, 1998.

**Valladolid 2002**

*Valladolid, capital de la corte, 1601-1606*. [Erak. kat., Valladolid, Sala Municipal de Exposiciones La Pasión]. Jesús Urrea Fernández (zuz.). Valladolid : Cámara de Comercio e Industria de Valladolid, 2002.

**Varela 1999**

Lucia Varela Merino. «Muerte de Villandrando ¿fortuna de Velázquez?», *Anuario del Departamento de Historia y Teoría del Arte*. Madrid : Universidad Autónoma de Madrid : Departamento de Historia y Teoría del Arte, 11. zenb., 1999, 185.-210. or.

**Veiga 1989**

Tomé Pinheiro da Veiga. *Fastiginia : vida cotidiana en la corte de Valladolid*. Narciso Alonso Cortés (trad. y notas). Valladolid : Ámbito, 1989.

**Vigo/.../Toledo 1993**

*Pintores del Reinado de Felipe III*. [Erak. kat., Vigo ; León ; Vitoria-Gasteiz ; Santander ; Iruña ; Zaragoza ; Valentzia ; Murtzia ; Sevilla ; Toledo]. Santander : Caja Cantabria, Obra Social ; Madrid : Museo del Prado, 1993.

**Woodall 1993**

Joanna Woodall. «Visualizando la identidad : retrato de Felipe II de España, realizado por Antonio Moro», *Urtekaría 1992 : asterlanak, albistak = Anuario 1992 : estudios, crónicas*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1993, 11.-18. or.

**Zarco del Valle 1870**

M. R. Zarco del Valle. *Documentos inéditos para la historia de las bellas artes en España*. Madrid : Imprenta de la Viuda de Calero, 1870 (CODOIN, LV. libk.).